

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA

2023ko enplegu publikoaren eskaintzan sartutako lanpostu hutsak oposizio-lehiaketa sistemaren bidez txanda irekian betetzeko hautaprobeen deialdia eta oinarri arautzaileak

Arabako Lautadako Kuadrillako lehendakariaren 2026ko uztailaren 29ko Ebazpenaren bidez, hautaketa prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak eta oinarri espezifikoak onetsi dira, oposizio-lehiaketaren bidez, txanda irekian, Arabako Lautadako Kuadrillako plantillan hutsik dauden 3 plaza karrerako funtzionario gisa betetzeko. Plaza horiek 2023ko ekitaldiko enplegu publikoaren eskaintzan sartuta daude (Lehendakariaren 2023ko azaroaren 29ko Ebazpenaren bidez onetsi zen, eta 2023ko abenduaren 15eko ALHAOn argitaratu zen, 145. zenbakian), eta, Ingurumen teknikariaren plazaren dedikazioari dagokionez, lehendakariaren 2026ko ekainaren 5eko 39/2026 Ebazpenaren bidez aldatu zen (2026ko ekainaren 15eko ALHAOn argitaratu zen, 68. zenbakian):

— Ingurumeneko teknikari plaza 1: Administrazio Bereziaren eskala, Teknikarien azpieskala, A taldea, A1 azpitaldea, Goi Mailako klasea, ehuneko ehuneko dedikazioa, derrigortasun data igarota duen 3. hizkuntza eskakizuna.

— Berdintasuneko teknikari plaza 1: Administrazio Bereziaren eskala, Teknikarien azpieskala, A taldea, A2 azpitaldea, Erdi Mailako klasea, ehuneko ehuneko dedikazioa, derrigortasun data igarota duen 3. hizkuntza eskakizuna.

— Arkitekto plaza 1: Administrazio Bereziaren eskala, Teknikarien azpieskala, A taldea, A1 azpitaldea, Goi Mailako klasea, ehuneko ehuneko dedikazioa, derrigortasun data igarota duen 3. hizkuntza eskakizuna.

Deialdi bakoitzaren oinarri orokorrak eta oinarri espezifikoak osorik argitaratzen dira iragarki honi erantsita (I. eranskina: Oinarri orokorrak; II. eranskina: Ingurumeneko teknikariaren oinarri espezifikoak; III. eranskina: Berdintasuneko teknikariaren oinarri espezifikoak; IV. eranskina: Arkitektoaren oinarri espezifikoak).

Hautaketa prozesuetan parte hartzeko eskabideak Arabako Lautadako Kuadrillako lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta hogeitau egun baliouduneko epean aurkeztuko dira, deialdiaren iragarkia BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, oinarri orokorretako 5. oinarrian jasotako moduan.

Oinarri hauen testu osoa eta hautaketa prozesu hauei buruzko iragarkiak Arabako Lautadako Kuadrillaren egoitza elektronikoan eta web orrian ere argitaratuko dira.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, beronen aurka, berraztertzeko errekurtsua aurkez dakioke Arabako Lautadako Kuadrillako lehendakariari nahi izanez gero, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean.

Agurain, 2026ko uztailaren 29a

Lehendakaria

GUSTAVO FERNÁNDEZ VILLATE

I. ERANSKINA

ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLAREN ZERBITZUKO KARRERAKO FUNTZIONARIOA IZATEKO HAUTAKETA PROZESUAK, 2023. URTERAKO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINZA ONETSI DUEN LEHENDAKARIAREN 2023KO AZAROAREN 29KO EBAZPENEAN JASOAK, ARAUTUKO DITUZTEN OINARRI OROKORRAK

1. XEDEA.

1.1 Oinarri hauen xedea da Arabako Lautadako Kuadrillaren eskala, azpieskala eta klaseetako plazak betetzeko arau orokorrak ezartzea. Plaza horiek oinarri espezifikoean adieraziko dira.

1.2 Dei egiten da Arabako Lautadako Kuadrillako karrerako funtzionarioen 3 plaza huts sistema irekiaren bidez betetzeko hautaketa probetarako.

Sistema bakarra ezartzen da parte hartzeko edo sartzeko, ondoko eduki honekin: Sistema irekia: Txanda orokorra.

1.3 Baldintzaren bat ezarrita daukaten lanpostuak inolaz ere ezin izango dira bete baldintza hori betetzen dutela frogatzen ez duten izangaiekin.

2. BALDINTZA OROKORRAK.

2.1 Hautaketa prozesua oposizio-lehiaketa izango da.

Hautaketa prozesu bakoitzaren berezitasunak dagozkien deialdien oinarri espezifikoen arautuko dira. Deialdi horiek betiere honako hauek jaso behar dituzte:

— Deitutako plazei dagokien sailkapen azpitaldea, eskala, azpieskala eta, hala badagokio, klasea eta espezialitatea.

— Deitutako plazen kopurua eta haien banaketa, derrigortasun datadun hizkuntza eskakizunen eta derrigortasun datarik gabeko hizkuntza eskakizunen arabera.

— Hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko eskatzen den titulazioa.

— Deitutako plazei dagozkien lanpostuetan jarduteko eskatzen diren berariazko betekizunak.

— Hautaketa txandak.

— Oposizio aldiko probak eta gai zerrendak.

— Berdinketa hausteko irizpide gisa emakumeei lehentasuna emateko klausula aplikatuko den ala ez.

2.2 Izendapenak eta lanpostuaz jabetzeak Arabako Lautadako Kuadrillako karrerako funtzionario izaera emango die hautatutakoei, eta arlo horretan indarrean dauden xedapenek adierazitako eskubide eta betebeharrak guztiak izango dituzte.

2.3 Hautaketa prozesua amaitzen denean dauden eta dei egindako plazarik dagozkion lanpostu hutsen arabera izango da zerbitzua emateko destinoa.

3. DEIALDIETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

Oinarri orokor hauetako 1. apartatuan adierazitako deialdietan parte hartu nahi duten pertsonak 3.2 apartatuan ezarritako parte hartzeko baldintza orokorrak eta deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoean adierazitako parte hartzeko berariazko baldintzak bete beharko dituzte. Baldintza horiek bete beharko dituzte harik eta karrerako funtzionarioko lanpostuaz jabetu arte.

3.1 Baldintza orokorrak eta berariazkoak betetzeko erreferentzia datak.

Interesdunek baldintza orokorrak eta berariazkoak bete beharko dituzte deialdi bakoitzeko eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean, euskararen hizkuntza eskakizunak egiaztatzeari dagokionez oinarri hauetako 9.3.1 apartatuan jasotako salbuespen kasuan izan ezik.

3.2 Parte hartzeko baldintza orokorrak.

Hauek dira parte hartzeko baldintza orokorrak:

a) Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea, edo, bestela, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatzen zaion estatu batekoa.

Europar Batasuneko estatuetako nazionalitatea dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta ezkontideak zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude eta ondorengoak hogeita bat urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, menpekoak badira.

b) Behar besteko gaitasun funtzionala izatea zereginak betetzeko.

c) Hamasei urte beteta izatea eta legez erretiro arrunterako ezarritako adina ez gainditzea.

d) Diziplinazko espediente bidez zerbitzutik kenduta ez egotea, administrazio publikoei edo autonomia erkidegoetako konstituzio organoei nahiz estatutu organoei dagokienez, eta ebazpen judizialaren arabera desgaitasun absoluturik edo berezirik ez izatea, ez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, ez funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko, ezta, langile lan kontratadunen kasuan, zerbitzutik kendu edo desgaitu duten lanpostuan langileak zituen eginkizunen antzekoak betetzeko ere. Beste estatu bateko nazionala bada, desgaitua edo horren pareko egoera batean ez egotea, eta bere estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez izatea.

e) Betetzen zituen eginkizunen antzekoak betetzeko desgaitua ez izana, langile lan kontratadunen diziplinazko kaleratzeko zehapen baten ondorioz, oso falta larria egiteagatik.

f) Dagokion deialdi espezifikoan eskatzen den titulu ofiziala edo homologatua edukitzea, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordaindu izana. Atzerriko tituluak badira, homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria beharko da.

g) Oinarri espezifikoetan eskatzen diren gainerako betekizun guztiak.

h) Indarreko araudiaren arabera ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege kausaren batean sarturik ez izatea.

i) Eskaerak aurkezteko epearen barruan oinarri hauetako 5. apartatuan ezarritako tasa ordainduta izatea edo tasa ordaintzetik salbuetsita egotearen egiaztagiria epe horren barruan aurkeztuta izatea.

3.3 Berariazko baldintzak.

Lanpostura sartzeko berariazko baldintzak ezarrita dituzten plazak eskuratzeko, izangaiek baldintza horiek betetzen dituztela egiaztatu beharko dute. Baldintza horiek betetzen dituztela egiaztatzen ez dutenek ezin izango dituzte inola ere plaza horiek eskuratu.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatzea berariazko baldintza bat da hizkuntza eskakizuna esleiturik eta derrigortasun data igarota daukaten lanpostuei dagozkien plazak eskuratzeko.

4. EGOKITZAPENAK.

4.1 Gainerako izangaiei baldintza beretan parte hartzen dutela bermatzeko, hautapen prozesuetan behar diren arrazoizko denbora eta baliabide egokitzapenak eta doikuntzak egingo dira hala eskatzen duten ezinduentzat; ezinbestekoa izango da desgaitasunak zerikusizuzena edukitzea egin beharreko probarekin.

Deialdian parte hartzeko aurkeztutako eskaeran probak egiteko egokitzapenak eta doikuntzak ezartzeko eskatu duten desgaituek desgaitasun maila kalifikatzeko organo tekniko eskudunak emandako irizpen tekniko fakultatiboa aurkeztu beharko dute, probak egin baino hamar egun baliadun lehenago, Arabako Lautadako Kuadrillan (edo egoitza elektronikoaren bidez). Irizpen horrek behar bezala egiaztatu eta justifikatu beharko du egokitzapenak eta doikuntzak egiteko eskaera.

Kasuan kasuko epaimahai kalifikatzaileak ebatziko du, desgaituek aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, hautaprobak egiteko arrazoizko denbora eta baliabide egokitzapen eta doikuntzak ezartzeko eskaeraren gainean.

4.2 Haurdun edo edoskitzaroan daudenek egokitzapenak eskatu ahal izango dituzte; horretarako, horren berri eman beharko diote epaimahai kalifikatzaileari, proba egin baino gutxienez 10 egun baliadun lehenago.

5. ESKAERAK AURKEZTEA.

5.1 Eskaerak aurkezteko epea eta modua:

a) Oinarri espezifikotik zehazten diren plazak hornitzeko hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi dutenek hogeita egun baliaduneko epean aurkeztu beharko dute eskaera, dagokien deialdia BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Deialdietan parte hartu nahi dutenek eskaerako apartatu guztiak beteta aurkeztu beharko dituzte, eta, horrekin batera, oinarri hauetako 5. apartatuan ezarritako izena emateko tasa ordaindu beharko dute aipatutako epearen barruan.

Izangaia hautaketa prozesuan ez onartzea ekarriko du eskaera ez aurkezteak, eskaerak aurkezteko epearen barruan tasa ez ordaintzeak edo ordaindutako tasaren zenbatekoa okerra izateak.

Hala ere, ordaindutako tasaren zenbatekoan egindako akatsa zuzendu ahal izango da, deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioa jarrita epe barruan eta dagokion zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen duen agiria erantsita.

Tasa epearen barruan ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskaera oinarri hauetan adierazitako epean eta moduan aurkeztea. Ondorioz, eskaera ez aurkezteak deialdian ez onartzea ekarriko du.

c) Eskaerak, kuadrillako lehendakariari zuzenduta, web orrian argitaratuko den eredu ofizial eta normalizatuaren arabera egingo dira eta kuadrillaren egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztu beharko dira: <https://www.arabakolautada.eus/fichas/17/211/Sede-Electronica>.

Arabako Lautadako Kuadrillaren erregistro orokorrean ere aurkeztu ahal izango dira, behar den bezala beteta.

Aplikatzekoa izango da, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua.

Eskaeraren barruan egongo da 5.4 apartatuan ezartzen den azterketa eskubidearen tasaren ordainketa.

5.2 Hautaprobetarako onartuak izateko eta haietan parte hartu ahal izateko, izangaiek eskaeraren atal guztiak bete beharko dituzte. Adierazi beharko dute betetzen dituztela eskatzen diren betekizun guzti-guztiak, betiere aurkezteko epearen azken egunari erreparatuta, 9.3.2 oinarrian euskara probetarako jasotzen den salbuespen kasuan izan ezik.

Horretarako, honako datu hauek adierazi beharko dira eskaerako kasuan kasuko ataletan:

a) Eskatzen diren datu pertsonalak.

b) Zein deialditan parte hartu nahi den.

c) Oposizio aldiko probak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren, euskaraz ala gaztelaniaz.

d) Oinarrietan eskatzen diren baldintza orokor eta berariazko guztiak betetzen direla adierazten duen adierazpena, betiere deialdian parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagokionez, oinarri hauetako 9.3 apartatuan euskararen hizkuntza eskakizunak egiaztatzeari dagokionez ezarritako salbuespenarekin. Izangaiaren adierazpen hori erantzukizunpeko adierazpentzat hartuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikulua arabera.

e) Deialdian parte hartzeko eskaera aurkezten den egunerako egiaztatutako euskararen hizkuntza eskakizuna.

f) Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko euskara ariketa egiteko hautua.

g) Egokitzapenik behar izanez gero: probak egiteko denbora eta baliabide moldaketak edo doikuntzak (zehaztu).

5.3 Datu pertsonalak babestea.

Datu pertsonalen tratamendua egiteko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa beteko da.

Izangaiek emandako datu pertsonalak Arabako Lautadako Kuadrillak tratatuko ditu, eta tratamendu jarduera batean sartuko dira. Tratamendu jarduera horren erabilera hautaketa prozesu hau eta, hala badagokio, ondoriozko lan poltsa kudeatzera mugatuko da.

- Tratamenduaren arduraduna: Arabako Lautadako Kuadrilla. IFZ: P5100003B.
- Helbidea: Langarika Bidearen plaza, 4 behea. Agurain, Araba - Espainia.
- Xedea: Hautaketa prozesua eta, hala badagokio, ondoriozko lan poltsa kudeatzea.
- Oinarri juridikoa: DBAren 6.1.c) artikulua -Tratamenduaren arduradunari eskatzen zaion lege betebeharrak bat betetzea.
- Hartzaileak: Hirugarrenei ez zaie daturik lagako, legezko betebeharra edo baimena dagoenean izan ezik. Hautaketa prozesuan parte hartzen duten pertsonen berariazko baimena eman ahal izango diote Arabako Lautadako Kuadrillari, prozesu horren ondoriozko lan poltsan egonez gero, datuak beste administrazio publiko batzuei laga diezazkien, hala eskatzen badute, aldi baterako langileen beharrei erantzuteko. Baimen hori eskabide orrian dagokion laukitxoaren bidez emango da, eta edozein unetan atzera egin ahal izango da.

Datuak jasotzearen helburua bete arte eta helburu horren eta datuak tratatzearen ondoriozko balizko erantzukizunak nori dagozkion zehaztu arte gordeko dira datuak.

Interesdunek eskubidea izango dute datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, datuen tratamendua mugatzeko, aurka egiteko eta datuak transferitzeko, aplikagarriak diren heinean, bitarteko hauen bidez:

- Aurrez aurre: Langarika Bidearen plaza 4, behea. Agurain, Araba - Espainia.
- Postaz: Langarika Bidearen plaza 4, behea. Agurain, Araba - Espainia.
- Posta elektronikoz: info@arabakolautada.eus.

Interesdunek datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakete <https://www.arabakolautada.eus/aviso-legal> webgunean, edo info@arabakolautada.eus webgunean eskatu.

Interesdunak Arabako Lautadako Kuadrillako Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jarri ahal izango dira, helbide elektroniko honetan: dpdcuadrillaalavesa@unive.es.

5.4 Azterketa eskubidearen tasak.

Hautaketa prozesuan parte hartu nahi dutenek tasa hauek ordaindu beharko dituzte eskaerak aurkezteko epearen barruan: 15,00 euro.

Kutxabank banketxeko ES80 2095 3234 1110 9523 1048 zenbakiko kontuan dirua sartuz ordainduko da tasa (kontuaren titularra: Arabako Lautadako Kuadrilla). Eskaerarekin batera ordaindu izanaren ordainagiria aurkeztu beharko da.

Izena emateko tasa ez da itzuliko eskatzaileari egoztekoak diren arrazoiengatik. Horren ondorioz, baldintzak ez betetzeagatik, prozesua ez gainditzeagatik edo deialdian eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik izangairen bat hautaketa prozesutik kanpo geratuz gero, ez zaio ordaindutako tasa itzuliko.

Tasa hori ordaintzetik salbuetsita egongo dira eskaera aurkezten den egunean:

a) Gizarte Segurantzaren araubideetako batean ere edo, hala dagokionean, lanbide mutualitatean jardule moduan altan ez daudenak.

Salbuespen hau aplikatzeko, subjektu pasiboak dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

b) Ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitorturik daukatena, desgaitasunen txandarako plaza erreserbarik ez dagoen deialdietan aurkezten baldin badira.

Salbuespen hau aplikatzeko, subjektu pasiboak desgaitasun maila egiaztatzen duen txartela aurkeztu beharko du, organo eskudunak egina.

Tasaren kuota ehuneko 50eko murrizketa izateko eskubidea edukiko dute eskaera aurkezten duten egunean familia ugariako kide izaera aitorturik daukatenean.

Murrizketa hau aplikatzeko, subjektu pasiboak familia ugariaren agiria aurkeztu beharko du, edo organo eskudunak emandako familia ugariaren karnet baliodunaren fotokopia.

Salbuespena edo murrizketa izateko eskubidea daukatenean, eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehenago, kasuan kasurako adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

6. IZANGAIK ONARTZEA. ERREKLAMAZIOAK.

6.1 Eskubideak aurkezteko epea amaituta, lehendakariak, gehienez ere hilabeteko epean, ebazpena emango du; horren bitartez, onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onetsiko du eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Zerrenda honetan sartuta egongo da ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren eta hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko proba egiteko hautua egin den. Ebazpen hori ALHAOn eta Arabako Lautadako Kuadrillaren web orrian argitaratuko da.

Baztertutako izangaiek eta argitaratutako datuetan okerren bat ikusten dutenek hamar egun balioduneko epea edukiko dute, behin-behineko zerrendak ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, erreklamazioak egiteko edo okerrak zuzen daitezela eskatzeko.

6.2 Erreklamazioak aurkezteko epea igaro ondoren, eta ebatzi eta gero, lehendakariak ebazpena emango du, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendak onesten dituen, behin-behineko zerrendetan jasotako datu berberak zehaztuta. Zerrenda horiek ALHAOn argitaratuko dira.

6.3 Ebazpen hori, halaber, Arabako Lautadako Kuadrillaren web orrian argitaratuko da.

6.4 Probak egin behar diren egunerako ez badaude ebatzita onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartzen dituen ebazpenean prozesutik baztertuta geratu diren izangaiek aurkeztutako errekursoak, izangaioak proba horiek egin ahal izango dituzte; hala ere, gero errekursoak ezesten badira, probek ez dute baliorik edukiko.

6.5 Edonola ere, interesdunek hautaprobetarako eskatzen diren betekizunak betetzen ditzutela aitortzeko baldintza da haiek egiaztatzea 11. oinarriaren arabera aurkeztu behar diren agiriak aurkeztuta; agiriaren bidez egiaztatu ezean, interesdunak galdu egingo ditu hautaprobaren parte hartzeak ekar ditzakeen eskubide guztiak.

7. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAK.

7.1 Izendapena:

Lehendakariaren ebazpen bidez, hautaprobak kalifikatu behar dituzten epaimahaietako kideak izendatuko dira. Izendapen horiek eta onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak batera argitaratuko dira ALHAOn eta Arabako Lautadako Kuadrillaren web orrian.

7.2 Osaera:

Epaimahaiburuak eta lau bokalek osatuko dute epaimahai kalifikatzailea, eta nork bere ordezkia izango du. Bokaletako batek idazkari lanak egingo ditu.

Epaimahaietako kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta inola ere ez beste inoren ordezkari gisa edo beste inoren kontura.

Epaimahaiak osatzean errespetatu egingo da espezialitatearen printzipioa, zeinaren arabera epaimahai bakoitzeko kideen erdiek, gutxienez, sartzeko eskatzen den jakintza arlo bereko titulu bat izan behar baitute, eta guztiek ikasketa maila bereko edo goragoko titulu bat.

Era berean, ordezkaritza orekatuaren printzipioa ere bermatuko da, zeina jasota baitago Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuko 21.3 artikuluan.

Epaimahaiak hala komeni dela baderitza, aholkulari espezialisten laguntza izango dute epaimahaikideek. Aholkulari horiek, organo kalifikatzaileari laguntzean, beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira.

7.3 Abstentzioa eta errekusazioa:

Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoari buruzkoak, 23. artikuluan ezartzen dituen inguruabarretako bat gertatuz gero, epaimahaikideek uko egin beharko diote jarduteari eta kuadrillako lehendakariari jakinarazi beharko diote.

Era berean, aurreko paragrafoan adierazitako egoeraren bat gertatzen bada, interesdunek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, edozein unetan, bat etorritik aipatutako lege testuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin.

7.4 Epaimahaikideak oinarriari lotzea:

Epaimahaiak lotuta geratzen dira oinarri orokor hauetara eta kalifikatu beharreko probetako hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri espezifikoak.

7.5 Jarduteko araua:

Epaimahaiak, beren jardunean, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 15. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako arauetara lotuko dira.

Edonola ere, hautaprobak hasi aurretik eta garaiz bilduko dira, lehendakariaren aginduz idazkariak bilera deia eginda, eta, behar bezala eratzeko, lehendakaria eta idazkaria, edo haien ordezkariak, eta kideen erdiak bildu behar dira, gutxienez.

Erabakiak bileran dauden botoen gehiengoz hartuko dira. Epaimahaiko kide guztiek izango dituzte hitza eta botoa. Berdinketak epaimahaiburuaren kalitate botoaren bidez ebatziko dira.

Epaimahaiburuaren edo beraren ordezkariaren kargua hutsik badago, bertaratzen ez bada, gaixorik badago edo legezkotasunaren bategatik bilerara azaltzen ez bada, epaimahaikide hauetako bat izango da ordezkaria, hurrenkera honetan: hierarkian maila goragokoena duena, antzinate handiena duena eta zaharrena.

Idazkaririk eta bere ordezkariak ez badago, kanpoan edo gaixorik badago, edo legezkotasunaren bategatik badago, epaimahaiak gehiengoz erabakitzen duen kideak ordeztuko du.

7.6 Ahalmenak:

Epaimahaiek autonomia funtzional osoz jardungo dute, prozeduraren legezkotasuna zainduko dute eta haren objektibotasuna bermatuko dute.

5.2.e) oinarrian ezartzen denaren arabera probak egiteko beharrezkoak diren denboraren eta bitartekoen arrazoizko egokitzapenak eta doikuntzak ezartzeko aurkezten diren eskaerak epaimahaiek ebatziko dituzte, desgaituek aurkeztutako agiriak aztertu ondoren.

Halaber, eta ordenamendu juridikoarekin bat etorritz, oinarri hauen aplikazioan sortzen diren zalantzak ebatziko dituzte, eta behar diren erabakiak hartuko dituzte deialdi bakoitza era egokian gauzatzeko, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuetan hartu beharreko irizpideak ezarrita.

Hautapen prozesuko edozein unetan epaimahaiak deialdian eskatzen diren betekizunak egiaztatzeko eskatu ahal izango du, eta horretarako 10 egun balioduneko epealdia ezarriko du. Izangaietako batek betetzen ez baditu edo epealdiren barruan egiaztatzen ez baditu, epaimahaiak entzunaldia emango zaio interesdunari eta gero prozesutik baztertzeko proposamena egingo dio kuadrillako lehendakariari, baztertzeko proposamenaren arrazoiak azalduta.

Epaimahaiburuek behar diren neurriak hartuko dituzte oposizio aldiko proba idatzien edukia isilpean gordetzen dela bermatzeko eta ariketak izangaiak nor diren jakin gabe zuzentzeko.

Probak modu mekanizatuan zuzentzen ez diren kasuetan, epaimahaiek baztertu egingo dituzte izangaiak baldin eta proba idatzietan beren nortasuna jakiteko aukera ematen duen marka edo zeinurik badago.

7.7 Iruzurrezko jokabideak eta lehia desleial:

Epaimahaiak hautaketa prozesutik kanpo utzi ahal izango ditu edozein proba normaltasunez gauzatzea eragozten duen edo berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera lehia desleiala eragiten duen iruzurrezko edozein jarduera egiten duten pertsonak. Jardun hori dagokion bilera aktan jasoko du epaimahaiak, eta berehala emango dio egoera horren berri Arabako Foru Aldundiko Funtzio Publikoko Zuzendaritzari. Lehia desleiala eragin dela ulertuko da baldin eta izangaiak hautaketa prozesuko probetan edozein bitarteko edo gailu eduki edo erabiltzen badute, betiere berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen aurkako abantaila badakarte. Epaimahaiaren iritziz lehia desleiala eragin lezakeen beste edozein iruzurrezko jarduketa halakotzat joko da. Izangairen batek arau horiek betetzen ez baditu, probatik kanporatua izango da berehala, eta hautaketa prozesutik eta prozesu horren ondoriozko lan poltsatik kanpo geratuko da.

7.8 Egoitza:

Jakinarazpenetarako eta bestelako gorabeheretarako, epaimahai kalifikatzaileen egoitza ondoko hau izango da: Langarika Bidearen plaza, 4 behea. 01200 Agurain, Araba.

8. DEIALDIAK, JAKINARAZPENAK ETA INFORMAZIOA.

8.1 Hautaprobak ez dira hasiko eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hilabete baino lehen.

8.2 Oposizio aldia eratuko duten ariketen artean, 9.2.1 oinarriaren arabera, lehenengoa egiteko deialdia ALHAOn argitaratuz egingo da. Hautaketa prozesuko gainerako komunikazio eta jakinarazpenak Interneteko helbide honetan argitaratuko dira: <https://www.arabakolautada.eus/>.

8.3 Deialdien informazio orokorra hemen dago, interesdunen eskura:

- Internet: <https://www.arabakolautada.eus/>.
- Arabako Lautadako Kuadrilla. Langarika Bidearen plaza, 4 behea. 01200 Agurain.

9. HAUTAKETA PROZEDURA.

9.1 Hautaketa prozedura oposizio-lehiaketa izango da, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoek ezartzen dutenaren arabera, eta haietan praktika eta prestakuntza aldi bat jaso daiteke hautaketa prozesuaren beste urrats baten moduan.

Ariketa egiteko jakin beharreko araudia deialdia ALHAOn argitaratzen den egunean indarrean dagoena izango da.

9.2 Oposizio aldiko probak:

9.2.1 Oposizio aldiak deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazten diren probak izango ditu.

9.2.2 Lehenengo proba egingo den lekua, eguna eta ordua, ALHAOn argitaratuko dira.

9.2.3 Txanda bakoitzeko izangaiei dei bat bakarrik egingo zaie proba bakoitzerako. Aparteko egoerak justifikatu egin beharko dira, eta dagokion epaimahaiak ebaluatuko ditu. Identifikaziorako, izangaiak probetara agiri hauetakoren batekin joango dira: NANA, pasaportea edo gidabaimena, edo agiri baliokidea atzeritarren kasuan.

9.2.4 Epaimahai kalifikatzaileek ezarriko dituzte izangaiek probak egiteko behar dituzten denboraren eta bitartekoen egokitzapenak, baldin eta eskaeran eskatu badituzte eta, betiere, probaren edukia hutsaldu gabe eta eskatzen den gaitasun maila murriztu edo txikitu gabe.

9.2.5 Izangai guztiek aldi berean egin ezin dituzten probetan, epaimahai kalifikatzaileak egingo duen zozketaren arabera zehaztuko da izangaiei hurrenkera.

Izangaiei artean ez badago inor lehenengo abizena zozketa horretan atera den letratik hasten zaiona, jarduteko ordena segidako hurrengo letren arabera izango da, dagokion moduan.

9.2.6 Proba bakoitzaren behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izangaiek hamar egun balioduneko epealdia edukiko dute proba horren inguruan egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko epaimahai kalifikatzaileari. Erreklamazioetarako epealdia amaiturik, eta aurkezten direnak ebatzi ondoren, epaimahaiak probaren behin betiko emaitzak argitaratzeko aginduko du.

9.2.7 Deialdi bakoitzean bi gai zerrenda egongo dira: bata komuna, plazaren titulazio taldeari dagokiona, eta bestea espezifikoa, plazari berari dagokiona.

9.3 Euskara:

9.3.1 Plaza bakoitzari dagokion hizkuntza eskakizuna ezarriko da plazaren eskala, azpieskala eta, hala badagokio, klasearen bitartez hornitu daitezkeen lanpostuek esleitura duten hizkuntza eskakizun nagusiaren arabera.

Edozein plazatarako sartzeko, alde batera utzita dagokion hizkuntza eskakizuna derrigortasun dataduna den edo ez, euskara jakitea baloratu beharreko merezimendu gisa hartu ahal izango da 9.4 oinarrian jasota dagoen lehiaketa aldian, eta balorazio hori, egiaztatutako hizkuntza eskakizunaren mailaren arabera, hautaketa prozesu osoan lortu daitekeen gehieneko puntuazioaren gainerakoaren ehuneko handiagoa edo txikiagoa izan daiteke. Deialdi bakoitzaren oinarrietan zehaztuko da ehuneko hori.

9.3.2 Euskara proba:

Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko ariketak egingo dira, eta nahitaezkoak izango dira derrigortasun datadun hizkuntza eskakizuna duten plazetarako lehiatzen direnentzat eta borondatezkoak derrigortasun datarik gabeko hizkuntza eskakizuna dutenetarako lehiatzen direnentzat.

Hala ere, hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko ariketak egin aurretik, epaimahai kalifikatzaileak epe bat irekiko du lehiatzen diren plazari dagokion hizkuntza eskakizuna aurrez egiaztatuta duten izangaiek egiaztapen horren ziurtagiria aurkez dezaten, eta hala eginez gero, euskara azterketa egitetik salbuetsita geratuko dira.

Hizkuntza eskakizunak agiri hauen bidez egiaztatu ahal izango dira (azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua, 2010eko azaroaren 15eko EHAA, 219. zenbakia):

a) 4. hizkuntza eskakizuna:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatu izanarena.

- Osakidetzaaren ziurtagiria, 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatu izanarena.

- HABEren 4. mailako ziurtagiria.

b) 3. hizkuntza eskakizuna:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, 3. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatu izanarena.

- Osakidetzaaren ziurtagiria, 3. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatu izanarena.

- HABEren 3. mailako edo goragoko ziurtagiria.

- Euskararen Gaitasun Agiria – EGA.

- Ertzaintzako 2. HE.

- Irakaskuntzako 2. HE.

- Hizkuntza eskola ofizialetako gaitasun agiria edo 5. mailakoa (ikasketa plan zaharrean).

- Hizkuntza eskola ofizialetako C1 gaitasun maila.

- Euskaltzaindiaren D agiria.

c) 2. hizkuntza eskakizuna:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, 2. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatu izanarena.

- Osakidetzaaren ziurtagiria, 2. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatu izanarena.

- HABEren 2. mailako edo goragoko ziurtagiria.

- Ertzaintzako 1. HE.

- Irakaskuntzako 1. HE.

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA).

- Hizkuntza eskola ofizialetako euskarako 4. maila (ikasketa plan zaharrean).

- Hizkuntza eskola ofizialetako maila aurreratua.

d) 1. hizkuntza eskakizuna:

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ziurtagiria, 1. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatu izanarena.

- Osakidetzaaren ziurtagiria, 1. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa egiaztatu izanarena.

- HABEren 1. mailako edo goragoko ziurtagiria.

Hizkuntza eskola ofizialetako euskarako 3. maila (ikasketa plan zaharrean).

- Hizkuntza eskola ofizialetako erdiko maila.

Aplikatzekoa izango da, orobat, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzearena eta hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez euskara maila egiaztatetik salbuestearena.

Izangaiek euskararen hizkuntza eskakizunak egiaztatu ahal izango dituzte Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak (IVAP) horretarako deitzen duen proba bateratuan parte hartuz. Proba hori egin ahal izateko, izangaiek deialdian parte hartzeko aurkeztu duten eskaeran berariaz adierazi beharko dute hizkuntza eskakizunak proba horren bidez egiaztatzea aukeratzen dutela, eta, ezingo dute proba egin ez badira aukera horretaz baliatu.

Epaimahai kalifikatzaileak argitara emango du euskara probaren lehenengo ariketa zein egunetan eta lekutan egingo den.

Ariketaren behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek hamar egun baliodun izango dituzte euskara ariketaren gainean egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak jartzeko epealdia amaitu eta aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, epaimahaiak euskara azterketako behin betiko emaitzak argitaratzeko aginduko du.

Ariketa horren bidez egiaztatutako hizkuntza eskakizunak ofizioz baloratuko dira, eta ez da beharrezkoa izango merezimendu gisa berariaz alegatzea.

9.4 Lehiaketa aldia:

9.4.1 Lehiaketa aldia izango da oposizio aldia gainditu duten izangaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratzea, eta haietako bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, deialdian zehaztutako baremoaren arabera.

Oposizio aldiko azken ariketaren behin-behineko emaitzak argitaratu ostean, hamar egun balioduneko epea ezarriko da oinarri espezifikoetan aipatzen diren lehiaketa aldiko merezimendu konputagarriak alegatu eta, hala badagokio, egiaztatzeko, euskara jakitearenak izan ezik; izan ere, hori egiaztatuko da 9.3.2 oinarrian jasotzen den ariketa eginda edo 9.3.2 oinarri horren bigarren paragrafoan aipatzen den epean dagozkion egiaztageria aurkeztuta.

Aurreko paragrafoan adierazten den dokumentazioa Arabako Lautadako Kuadrillaren egoitzan aurkeztu beharko da, Aguraingo Senda de Langarika plazan, 4 behean, edo erakundearen egoitza elektronikoaren bidez.

Horretarako ezarritako epean behar bezala alegatu eta egiaztatu ez diren merezimenduak ez dira baloratuko, euskararen ezagutza izan ezik, oinarri hauetako 9.3 apartatuan xedatutakoaren arabera alegatu eta egiaztatuko baita.

Eskaerak aurkezteko epearen azken eguna erreferentziazat hartuta zenbatuko dira merezimenduak; euskararen ezagutzari dagozkionak izan ezik, horiei aipatutako apartatuan xedatutakoa aplikatuko baitaie.

Oposizio aldian egindako azken ariketaren kalifikazioari erreklamazioen bat aurkeztu diotenek, harekin batera, eta hala badagokio, merezimenduen alegazioa eta egiaztapena aurkeztu beharko dituzte, oinarri espezifikoetan adierazitakoaren arabera.

Merezimenduak egiaztatzeko agiriak jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak izan beharko dira, eta fotokopia konpultsatuek, baliozkoak izateko, informazio hau eduki beharko dute: data, eta konpultsaren arduradunaren izen-abizenak, NANA eta sinadura irakurgarria.

Igarotako denboraren arabera, urteka, sei hilekoka edo hilabeteka baloratzen diren merezimenduak alegatutako aldietako egunak batuta konputatuko dira eta, behin batura hori eginda, erreferentzia aldia baino frakzio txikiagoak alde batera utziko dira. Horretarako, urtea 365 egun naturalen batura izango da, sei hilekoa 180 egun naturalen batura eta hila 30 egun naturalen batura.

Lanaldi partzialeko izendapen edo kontratuarekin emandako zerbitzuak baloratzeko, kontuan edukiko da kontratatutako lanaldiaren iraupena, lanaldi osoarekiko erlazioan. Kasu honetan, baremo orokorrean ezarritako puntuazio aplikagarria dagokion proportzioan murriztuko da.

Lehiaketa aldiak ez du baztertze izaerarik izango eta bertan eskuratutako puntuak ezingo dira kontuan hartu oposizio aldiko probak gainditzeko.

9.4.2 Alde batera utzita euskara ezagutzaren gainean 9.3.2 oinarrian ezarritakoa, gainerako merezimenduak eskaerak egiteko epeko azken egunari erreparatuta soilik konputatuko dira.

Interesdunek Arabako Lautadako Kuadrillan egindako zerbitzuak alegatu egin beharko dituzte, baina ez dituzte egiaztatu beharko. Administrazio horrek ofizioz konputatuko ditu.

Gainerako administrazio publikoetan egindako zerbitzuen denbora, dagokion erakundeak egiaztatuko du.

9.5 Hautaproben kalifikazioa:

Oposizio aldiko ariketak deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan xedatzen denaren arabera kalifikatuko dira.

Lehiaketa aldiko merezimenduen balorazioa deialdiaren oinarri espezifikoetan jasotako baremoen arabera esleitutako puntuen batura izango da.

Hautaketa prozesuko azken kalifikazioa oposizio aldian eta lehiaketa aldian lortutako puntuen batura izango da.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegitzako Dekretuaren 21.1.a) artikulua aplikatzeari dagokionez, baldin eta deitutako plazetako eskala, azpieskala, klase eta espezialitatean emakumeak gutxiegi ordezkaturik badaude, oinarri espezifikoek ezarriko dute aipatutako artikuluan jasotako berdintasuna hausteko klausula aplikatuko dela.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe, berdinketa hausteko ezarritako lehentasun hurrenkera honako irizpide hauen arabera ezarriko da, hurrenez hurren:

- 1) Oposizio aldiko proba teorikoan erantzun zuzen gehien lortu dituenaren alde.
- 2) Oposizio aldian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 3) Lehiaketa aldian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 4) Lehiaketa aldian baloratzeko moduko esperientziarik handiena egiaztatzen duenaren alde, oinarri hauetan fase horretarako ezarritako gehieneko muga aintzat hartu gabe.

10. LANGILEAK HAUTATZEA.

10.1 Hautaketa prozesuko azken kalifikazioa eginda, dagokion epaimahaiak, kalifikazioen arabera, prozesua gainditu dutenen zerrenda egingo du.

10.2 Aipatutako zerrendak egin eta gero, epaimahaiak argitara emango dituzte kuadrillaren web orrian: <https://www.arabakolautada.eus/>.

Gainditu duten behin-behineko emaitza horiek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek hamar egun baliodun izango dituzte lehiaketa aldiaren gainean egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko epaimahai kalifikatzaileari.

10.3 Erreklamazioak egiteko epea amaiturik, eta aurkeztutako erreklamazioak ebatzi eta gero, epaimahai bakoitzak aginduko du prozesua gainditu duten pertsonen behin betiko zerrenda bakarra argitara eman dadila kuadrillaren web orrian eta ALHAOn.

11. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.

11.1 Gainditu duten pertsonen behin betiko zerrenda argitara ematearekin batera, hogeiei egun balioduneko epea emango da plaza lortu dutenek aurkeztu ditzaten deialdian ezarritako gaitasun baldintzak eta betekizunak egiaztatzen dituzten eta 7.6 oinarrian ezarritakoaren arabera dagokion epaimahaiak lehenago eskatu ez dituen agiriak. Ondoren adierazten dira:

- a) NANaren fotokopia konpultsatu edo, atzerritarren kasuan, nortasun agiri baliokidearena.
- b) Eskala eta azpieskala bakoitzera sartzeko eskatzen diren eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazten diren tituluen eta betekizunen fotokopia konpultsatua.
- c) Zinpeko adierazpena edo hitz ematea, adieraziz ezen ez dagoela ezgaitua eginkizun publikoetan jarduteko, ez dela baztertua izan edozein administrazio publikoren zerbitzutik diziiplina espediente baten bidez, eta ez dagoela sartuta Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak jasotzen dituen eta ez-gaitasuna edo bateraezintasuna dakarten egoeretako batean.
- d) Espainiako nazionalitateari ez duten izangaiak zinpeko adierazpena edo hitz ematea aurkeztu beharko dute, adierazten duena beren estatuan ez dutela funtzio publikora sartzeari galarazten dien diziiplina zigorrik ez kondena penalik.
- f) Era berean, hautatuek egiaztatu beharko dute ez dutela gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik, dagozkien eginkizunak oinarri hauen eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoaren arabera betetzea eragozten duenik. Horretarako, ziurtagiri medikoa aurkeztuko dute, zeinean adierazi beharko baita ez dutela eginkizunak normal betetzea galarazten duen gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik, ezinduen gizarte integratzearako apirilaren 7ko 13/1982 Legea aplikatzearen kalterik gabe. Desgaitasunen bat dutenek organo eskudunaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute, egoera hori eta lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko gaitasuna egiaztatzen duena.

Hautatuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpena, agiri egokiak aurkezteko hogeiei egun balioduneko epea ezartzen duena, ALHAOn eta kuadrillaren web orrian argitaratuko da.

11.2 Egiaztagiria, oinarri honetako aurreko puntuen arabera, jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izan beharko dira.

11.3 Agiri horiek aurkeztu ezina behar bezala justifikatuz gero, izangaiak zuzenbidean onartzen den edozein frogabideren bitartez egiaztatu ahal izango du betetzen dituela eskatzen diren baldintzak.

11.4 Aurkezteko lekua:

Aurretik esandako agiriak kuadrillaren egoitzan aurkeztu beharko dira (Langarika Bidearen plaza, 4 behea, Agurain - 01200 PK).

11.5 Agiriak ez aurkeztea:

Plaza lortu duten pertsonak ez badituzte aurkeztu behar diren agiriak adierazitako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, edo haiek aztertuta ondorioztatzen bada ez dutela betetzen 3. oinarrian eskatzen diren baldintzetakoren bat, edo ez badaukate eginkizunak betetzeko behar den gaitasun funtzionala, ezin izango dira karrerako funtzionario izendatu, eta deuseztatuta geratuko dira haien jardun guztiak, eskabidean datu faltsuak emateagatik bereganatu lezaketen erantzukizunaren kalterik gabe.

Holako kasuetan, gainditu duten pertsonen behin betiko zerrendaren hurrenkerari jarraituko zaio, zerrendan hurrengo dagoenari eskatuz 11.1 puntuan adierazitako agiriak aurkeztu ditzan.

Arrazoi berberengatik beste norbait baztertzea gertatzen bada, prozesua errepikatu egingo da aurreko paragrafoan adierazitako moduan, eta horrela behin eta berriro, lortu arte hautatuetako inor ez baztertzea arrazoi horiengatik.

12. PRAKTIKA ETA PRESTAKUNTZA ALDIA.

Hala ezartzen den deialdi espezifikoetan, praktika eta prestakuntza aldi bat egingo da, gehienez ere sei hilabetekoa.

Hala izanez gero, kuadrillaren lehendakariak praktiketako funtzionario izendatuko ditu 11. oinarrian ezarritakoaren arabera epaimahaiak proposatutako izangaiak.

Hautaketa prozesuko beste aldi bat bezala praktika eta prestakuntza aldia ezarrita daukaten plaza bat baino gehiagotarako hautatuak izan diren izangaiek, horietako bat aukeratu beharko dute aldi hori hasi baino lehen. Egoera hori gertatzen bada, 11. oinarriaren azken paragrafoan azaldutako moduan jokatu da.

Praktiketako funtzionario izendatzeko aurreikusten datan hautatua aldi baterako ezintasun egoeran edo amatasun edo aitatasun lizentziarekin badago, izendapena atzeratu egingo da medikuaren alta jaso arte edo lizentzia amaitu arte.

Praktikaldirako lortutako destinoak behin-behinekoak izango dira.

Praktika eta prestakuntza aldia ebaluatu eta kalifikatu egingo da, aldagai hauek baloratzuz:

- Egitekoak eta eginbeharrak betetzea.
- Lanaren kalitatea.
- Ikasteko jokaerak.
- Ekimena.
- Erantzukizuna eta moldatzeko gaitasuna.
- Elkarlanerako jokaerak.
- Herritarrekiko eta lankideekiko harremanak.

Praktika eta prestakuntza aldia baloratzeko, ebaluazio batzorde bat eratuko da, lehendakari batez eta bi bokalez osatua, guztiak ere karrerako funtzionarioak.

Balioespen batzordea honela eratuta egongo da:

- Batzordeburua: idazkaritza lanak egiten dituen pertsona, edo berak eskuordetzen duen karrerako funtzionarioa.
- Bi bokal, Arabako Lautadako Kuadrillaren zerbitzuko karrerako funtzionarioak izango direnak. Bi bokalek administrazio horretako beste karrerako funtzionario batzuen esku utz ditzakete beren eginkizunak.

Bokaletako batek idazkari gisa jardungo du.

Ebaluazio batzordeak epaimahaiantzat ezarrita dauden funtzionamendu arau berberekin jardungo du, eta praktika eta prestakuntza aldia “Gai” edo “Ez-gai” kalifikazioekin baloratuko du.

Praktika aldian zehar eta hura amaitu baino lehen, balioespen batzordeak aldi horren gaineko behin-behineko ebaluazio bat egingo du, eta horren emaitza interesdunari jakinaraziko zaio, ezezkoa bada. Praktika aldia amaitutakoan, azken ebaluazioa egingo da.

Oro har, praktika aldia gehienez ere sei hilabetekoa izango da, baina, betiere, lanpostuko benetako presentziako 398 ordu bete beharko dira gutxienez; ondorio horretarako, lan orduetan egindako prestakuntza ikastaroak benetan lan egindakotzat hartuko dira.

Balioespen batzordeak lehendakariari bidaliko dio behin betiko zerrenda, hautaketa prozesuan lortutako puntuazioaren hurrenkeran, praktika eta prestakuntza aldia gaingitu duten eta lanpostuaren betekizunak betetzen dituzten izangaiei karrerako funtzionario izendapena presta dadin.

Praktika eta prestakuntza aldia gaingitu ezean, lehendakariaren ebazpen bidez izangaiak galdu egingo ditu karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak.

13. IZENDAPEN PROPOSAMENA.

Epaimahai kalifikatzaileak aurreko apartatuan ezarritakoa bete duten hautatuen behin betiko zerrenda egingo du, bakoitzak lortu duen destinoarekin, eta lehendakariari helaraziko dio Arabako Lautadako Kuadrillako karrerako funtzionario izendatzeko proposamen moduan. Behin betiko zerrenda hori Arabako Lautadako Kuadrillaren web orrian argitaratuko da.

14. KARRERAKO FUNTZIONARIOAK IZENDATZEA ETA LANPOSTUEZ JABETZEA.

14.1 Eskatzen diren baldintzak orain arte azaldutako moduan egiaztatu dituzten hautatuen behin betiko zerrendaren bidez epaimahai kalifikatzaileak egiten duen izendapen proposamena jasota, lehendakariak, ebazten baten bidez, Arabako Lautadako Kuadrillako eskala, azpieskala eta klaseetako karrerako funtzionario izendatuko ditu zerrenda hori osatzen dutenak.

Izendapenak ALHAOn argitaratuko dira.

Izendatuek hilabeteko epean hartu behar dute jabetza karrerako funtzionario moduan, izendapena egiten duen ebazpena ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera. Epe hori egutegiko beste hamabost egunez luzatu ahalko da, izendatutako pertsonak hala eskatzen badu eta horretarako arrazoi justifikaturik badago.

14.2 Ezarritako epean lanpostua jabetzan hartzen ez dutenek, salbu eta ezinbesteko kasuetan, galdu egingo dituzte deialdiaren ondoriozko eskubideak Arabako Lautadako Kuadrillako funtzionario izaera eskuratzeko. Kasu horietan, epaimahaiak izendapen proposamen osagarri bat helaraziko dio lehendakariari, gaindituen behin betiko zerrendako puntuazio ordenaren arabera hala dagokien izangaien alde, 10.4 oinarrian adierazitako irizpideen arabera. Horretarako, azaldutako gorabeheraren ondorioz hutsik geratu diren plaza adina izangai deklaratu dituzten hautatu. Izendatzeko proposatzen diren pertsona horien zerrendak bakoitzari dagokion lanpostua jasoko du, eta 5.1 oinarrian adierazten diren bulegoetako iragarki tauletan eta Kuadrillaren web orrian argitaratuko da.

Azkenik, 11. oinarrian eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera jokatu da.

15. DEIALDIAREN AURKA EGITEA.

Interesdunek deialdiaren, oinarrien, haien ondoriozko administrazio egintza guztien eta epaimahaien jardunaren aurka egin dezakete, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, eta uztailaren 13ko 29/1988 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, jasotzen dituzten kasu eta eretan.

16. ALDI BATERAKO ENPLEGU POLTSAK.

Behin deialdiak ebatzita, oposizio aldiko ariketak gainditu eta lanposturik eskuratu ez duten izangaien dagozkien lan poltsak osatuko dituzte, zeinak erabiliko baitira aldi baterako langile beharrak asetzeko.

AZKEN ARAUAK

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, hautaprobak lege-arau hauetan ezarritakoaren araberaren egingo dira:

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onesten duena enplegu publikoaren oinarrizko estatutuaren testu bateratua.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurriena.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu batekina onesten duena.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko.
- Langileak Estatuaren Administrazio Orokorren zerbitzura sartzeko, Estatuaren Administrazio Orokorreko lanpostuak hornitzeko eta funtzionario zibilen sustapen profesionalerako Arautegi Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsia.
- Toki araubidean indarrean dauden lege xedapenen testu bateratua, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia.
- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, toki administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozeduraren gutxienezko arauari eta programei buruzkoa.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa.
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailetara egokitzen dituena.
- 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzearena eta hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez euskara maila egiaztatzenetik salbuestearena.
- 2271/2004 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, desgaituen enplegu publikorako sarrera eta haien lanpostuen hornidura arautzen duena.
- PRE/1822/2006 Agindua, ekainaren 9koa, ezartzen dituena ezinduek enplegu publikoa eskuratzeko hautaketa prozesuetan denbora gehigarriak egokitzeko irizpide orokorrak.

II. ERANSKINA

OINARRI ESPEZIFIKOAK — INGURUMENEN TEKNIKARIAK

ADMINISTRAZIO BEREZIAREN ESKALA, TEKNIKARIEN AZPIESKALA TEKNIKOA, A TALDEA (A1), INGURUMENEN TEKNIKARIAK

1. DEIALDIKO PLAZAK.

Dei egiten da administrazio bereziaren eskalako teknikarien azpieskalako ingurumeneko teknikarien klaseko plaza bat –A taldea, A1 azpitaldea– oposizio-lehiaketa bidez hornitzeko, honela banatuta:

Plaza bat (1) sistema irekiko txanda orokorrean, derrigortasun datadun 3. hizkuntza eskakizunarekin (2019/12/16).

Hauek dira lanpostu horren ezaugarriak eta ordainsariak:

- Oinarrizko ordainsariak: A1 azpitaldearenak.
- Destino-osagarria: 26. mailari dagozkionak.
- Berariazko osagarria: 17.213,21 euro.

2. BETEKIZUNAK.

Oinarri orokorretan ezarritakoez gain, ingurumenarekin zerikusia duten arlo zientifiko-teknikoetako lizentziatura edo unibertsitate gradua eduki beharko da, edo titulua emateko eskubideak ordainduta izan beharko dira, edo eskubideak ordainduta egon beharko dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Titulua atzerrian lortu duten izangaiek tituluaren homologazioaren egiaztagiria eduki beharko dute.

Halaber, deialdiko plaza betetzeko, beharrezkoa izango da B gidabaimena edukitzea.

3. HAUTAKETA PROZESUA.

3.1. Oposizio aldia.

Aldi honetan, bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertze indarrekoak. Gehienez ere, 83 puntu lortu ahal izango dira.

3.1.1 Lehenengo ariketa: Ezagutza tekniko eta administratiboa. Nahitaezkoa eta baztertzailea. Gehienez 35 puntu, gutxienez 17,5 puntu. Test motako 2 proba egin beharko dira, eta oinarri hauei erantsitako gai zerrendei buruzko 4 erantzun aukera emango dira. Erantzun zuzenek 1,00 puntu ematen dituzte, eta okerre 0,33 puntu kentzen dituzte. Deusezak, anizkoitzak eta zuri emandakoak ez dute ez punturik kentzen ez ematen.

• 3.1.1.1. 1. proba. Oinarri hauetako gai zerrenda orokorrekarekin lotuta dago. Gehieneko puntuazioa: 11 puntu. Epaimahai kalifikatzaileak ariketako gehieneko puntuazioa esleitu dio lor daitekeen zuzeneko gehieneko puntuazioari, eta gainerako puntuazioak proportzionalak izango dira.

• 3.1.1.2. 2. proba. Oinarri hauetako gai zerrenda espezifikorekin lotuta dago. Gehieneko puntuazioa: 24 puntu. Epaimahai kalifikatzaileak ariketako gehieneko puntuazioa esleitu dio lor daitekeen zuzeneko gehieneko puntuazioari, eta gainerako puntuazioak proportzionalak izango dira.

Salbuespen gisa, aurreko ataletan deskribatutako gutxieneko puntuazioak lortzen dituzten izangaien kopurua deitutako plazak halako bost baino txikiagoa bada, Epaimahai Kalifikatzaileak, ebazpen arrazoitu baten bidez eta emaitzak argitaratu eta izangaia nortzuk diren jakin aurretik, ariketa osoaren mozketan nota gutxienez 14 punturaino jaistea erabaki ahal izango du (hasierako 17,5 puntuen ordeztu), lehiaketa aldian hautaketa eta lehia egokia bermatzeko xedearekin.

3.1.2. Bigarren ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzaila. Gehienez 48 puntu lor daitezke. Test erako proba bat egin beharko da, eta erantzuteko 4 aukera izango dira, teoriko-praktikoak, egin-kizun eta zeregin nagusiekin lotura zuzena dutenak. Ariketa hau gainditzeko, gutxienez 24 puntu lortu beharko dira. Erantzun zuzenek 1,50 puntu ematen dituzte, eta okerrekin 0,50 puntu kentzen dituzte. Deusezak, anizkoitzak eta zuriz emandakoek ez dute ez punturik kentzen ez ematen. Epaimahai kalifikatzaileak ariketako gehieneko puntuazioa esleituko dio lor daitekeen zuzeneko gehieneko puntuazioari, eta gainerako puntuazioak proportzionalak izango dira.

Salbuespen gisa, aurreko ataletan deskribatutako gutxienezko puntuazioak lortzen dituzten izangaien kopurua deitutako plazak halako bost baino txikiagoa bada, Epaimahai Kalifikatzaileak, ebazpen arrazoitu baten bidez eta emaitzak argitaratu eta izangaiak nortzuk diren jakin aurretik, ariketa osoaren mozketan nota gutxienez 20 punturaino jaitea erabaki ahal izango du (hasierako 24 puntuen ordez), lehiaketa aldian hautaketa eta lehia egokia bermatzeko xedearekin.

3.2. Euskara azterketa.

Euskara azterketa, hizkuntza horren ezagutza ebaluatuko da 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatze proba eginez.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukatenek edo balio bereko titulu edo ziurtagirietako bat daukatenek euskara ariketak egiteko eguna baino lehenago aurkeztu beharko dituzte titulu edo ziurtagiri horiek egiaztatzen dituzten agiriak, helbide honetan:

Kuadrillako idazkaritza. Langarika Bidearen plaza, 4 behe. 01200 Agurain.

3.3. Lehiaketa aldia.

Lehiaketa aldian, izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratu dira. Haietako bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak esleituz egingo da.

3.3.1. Esperientzia: 8 puntu gehienez.

Administrazio publikotzat jotzen diren erakunde eta organismoetan izandako lan esperientzia gehienez ere zortzi (8) puntu baloratuko da, edozein administrazio publikotan Ingurumeneko teknikari gisa edo Administrazio Bereziaren eskalako A1 taldeko Teknikarien azpieskalako lanpostuetan emandako zerbitzuengatik, baldin eta deitutako lanpostuari dagokion eremu funtzional edo sektorialekoak badira.

Hilabete bati dagokion zatikia 0,15 punturekin baloratuko da esperientzia edozein toki erakundetan bada, eta 0,10 punturekin beste administrazio batean bada, gehienez 8 punturekin bi kasuetan.

Onorio horietarako, administrazio publikotzat jotzen dira abenduaren 26ko 70/1978 Legeak barnean hartzen dituenak, berekin dakartenak administrazio publikoko aurretiazko zerbitzuen aitorpena, merkataritza sozietate publikoak eta fundazioak kanpo daudelarik.

Lanaldi partzialeko izendapen edo kontratuarekin emandako zerbitzuak baloratzeko, kontuan edukiko da kontratatutako lanaldiaren iraupena, lanaldi osoarekiko erlazioan. Kasu honetan, baremo orokorrean ezarritako puntuazio aplikagarria dagokion proportzioan murriztuko da.

3.3.2. Informatikaren ezagutza (gehienez 0,50 puntu)

Informatika ezagutzak baloratuko dira, 0,5 puntu gehienez, eta 0,1 puntu emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.
- Internet oinarrizkoa.

- Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 (maila bakarra).
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.
- Internet aurreratua.

Moduluak gaintu direla egiaztatzeko, ITxartelaren ziurtapen sistema erabiliko da, oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen badira, haietako bat bakarrik baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarrizko maila ere egiaztatutzat emango zaie.

Aplikazio baten bertsio jakin baten ziurtapenak baliogabetu egingo ditu bertsio zaharragoenak.

3.3.3. Prestakuntza (3 puntu gehienez).

• Graduondokoa edo masterra, baldin eta deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalarekin lotutako ingurumen edukiko gaiei buruzkoa bada, irizpide honen arabera:

- 300 ordu edo gehiago: puntu 1.
- 500 ordu edo gehiago: 1,5 puntu.
- 700 ordu edo gehiago: 2 puntu.

• Deitutako plazarekin lotura zuzena duen prestakuntza ikastaro bakoitzeko, deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalarekin zerikusia duten zentro ofizialek eta administrazio publikoek emandakoak:

- 51 - 100 ordu: 0,25.
- 101 - 300 ordu: 0,45.

Atal honetan epaimahaiak honako hauek soilik hartuko ditu kontuan: funtzionarioen prestakuntza eskola ofizialek (Administrazio Publikoaren Institutu Nazionala, IVAP, beste administrazio eskola batzuk, eta abar), elkargo ofizialek, unibertsitate publiko zein pribatuak, izaera juridiko publikoa duten zentroek antolatu edo emandako prestakuntza jarduerak, baldin eta ezarritako denboran aurkeztu badira, behar bezala egiaztatu badira eta iraupena justifikatu bada, ordu kopuru osoa berariaz adieraziz.

Titulazio akademiko bat lortzeko ikasketa planen parte den prestakuntza ez da baloratuko. Prestakuntza ikastaroak ez dira kontuan hartuko, ikastaro horien iraupena egiaztagirietan berariaz adierazten ez bada.

4. PRAKTIKA ETA PRESTAKUNTZA ALDIA.

6 hilabete iraungo duen praktika eta prestakuntza aldi bat egingo da, oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz.

5. ALDI BATERAKO LAN POLTSA.

Behin deialdiak ebatzita, oposizio aldiko ariketak gaintu eta lanposturik eskuratu ez duten izangaiek dagozkien lan poltsak osatuko dituzte, zeinak erabiliko baitira aldi baterako langile beharrak asetzeko.

GAI ZERRENDIA**1. GAI KOMUNAK**

1. gaia. Espainiako Konstituzioa (I). Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak (10-55 artikulua).
2. gaia. Espainiako Konstituzioa (II). Estatuaren lurralde antolamendua (137-158 artikulua).
3. gaia. Europar Batasuna. Erakunde eta organismo nagusiak, haien osaera eta eskumenak: Kontseilua, Batzordea, Parlamentua, Justizia Epaitegia, Europako Kontuen Auzitegia, Eskualdeen Batzordea, Europako Inbertsio Bankua.
4. gaia. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (I). Atariko titulua (1-9 artikulua). I. titulua: Euskal Herriaren eskumenak (10-12 artikulua). II. titulua: Euskal Autonomia Erkidegoko botereak (24-39 artikulua).
5. gaia. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (II). III. titulua: Ogasuna eta Ondarea (40-45 artikulua).
6. gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak. I. titulua. Xedapen orokorrak. II. titulua. I. kapitulua. Udalerrria Udal mugartea.
7. gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak. II. titulua. II. kapitulua. Udal antolamendua. Alkatea, udalbatza, zinegotziak, tokiko gobernu batzarra, informazio batzordeak, eskumen eskuordetuak, erakundearen egitura, udaleko taldeak eta alderdi politikoak.
8. gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak. VI. titulua. Ondasunak, jardura eta zerbitzuak eta kontratazioa. VII. titulua. Toki erakundeetako langileak.
9. gaia. 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. III. titulua. Udal eskumenak.
10. gaia. Enplegu publikoa (I). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enpleguaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena. Langile motak (8-13 artikulua). Enplegatu publikoen eskubideak (14-20 artikulua). Enplegatu publikoen eginbeharrak. Jokabide kodea (52-54 artikulua).
11. gaia. Enplegu publikoa (II). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enpleguaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena. Zerbitzu harremana hartzea eta galtzea (55-68 artikulua).
12. gaia. Enplegu publikoa (III). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enpleguaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena. Administrazio egoerak (85-92 artikulua). 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena. Hizkuntza normalizazioa (187-190 artikulua).
13. gaia. Administrazio prozedura (I). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Jarduketara arau orokorrak (13-28 artikulua). Epemugak eta epeak (29-33 artikulua). Egintzen eraginkortasuna (37-42 artikulua).
14. gaia. Administrazio prozedura (II). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio prozeduran interesdun denaren eskubideak (53. artikulua). Prozeduraren antolamendua (70-74 artikulua). Ebazpena (87-92 artikulua).
15. gaia. Sektore publikoko kontratuak (I). 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Legearen xedea eta aplikazio eremua (1-3 artikulua). Kontratu motak (12-18 artikulua). Kontratu administratiboak eta kontratu pribatuak (24-27 artikulua).

16. gaia. Sektore publikoko kontratuak (II). 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Itunak egiteko askatasuna eta kontratuaren gutxieneko edukia (34-35 artikulua). Baliogabetasun araubidea (38-43 artikulua).

17. gaia. Datuen babesa. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. Xedapen orokorrak (1-3 artikulua). Babesaren printzipioak (4-10 artikulua). Pertsonen eskubideak (11-18 artikulua).

18. gaia. Gardentasuna. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. Aplikazio eremu subjektiboa (2-4 artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea (12-16 artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidez baliatzea (17-22 artikulua).

19. gaia. Berdintasun politikak. Printzipio orokorrak eta tutoretza. Politika publikoak: printzipio orokorrak (3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako: 3-22 artikulua) Euskal Administrazio publikoen eremuko neurriak (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legearen testu bategina onesten duena) (16-25 artikulua).

20. gaia. 63/1989 Foru Araua, azaroaren 20koa, Arabako Lurralde Historikoko Kuadrillena.

2. GAI ESPEZIFIKOAK

21. gaia. Xedapen orokorrak. 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioarena. 1-6 artikulua.

22. gaia. Ingurumen politikaren eskumenak eta koordinazioa. 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioarena. 7-12 artikulua.

23. gaia. Informazio eta partaidetza publikoa ingurumenaren arloan. 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioarena. 13-18 artikulua.

24. gaia: Ingurumenean eragina duten jarduerak antolatzea. 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioarena. 19-59 artikulua (Xedapen orokorrak, Ingurumen baimenak. Ingurumen baimen bateratuaren eta ingurumen baimen bakarraren xedapen komunak. Jarduera sailkatuaren lizentzia eta jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa).

25. gaia. Ingurumen ebaluazioa. 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioarena. 60-79 artikulua.

26. gaia. Ingurumenaren hobekuntza bultzatzeko tresnak. 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioarena. 80-89 artikulua.

27. gaia. Ingurumen ikuskaritza eta kontrola. 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioarena. 90-96 artikulua.

28. gaia. Ingurumen legezkotasuna berrezartzea eta ingurumeneko kalteengatiko erantzukizuna. 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioarena. 97-104 artikulua.

29. gaia. Ingurumeneko zehapen araubidea. 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioarena. 105-120 artikulua.

30. gaia. Xedapenak eta eranskinak. 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioarena. Xedapenak eta eranskinak.

31. gaia. 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onesten duena.

32. gaia. Printzipio eta xedapen orokorrak. 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioarena. 5., 6., 8., 13. eta 16. artikulua.

33. gaia. 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioarena. IV. eta V. eranskinak.

34. gaia: 1. atala. Ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura ingurumen adierazpen estrategikoa egiteko. 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioarena. 17-28 artikulua.

35. gaia. 2. atala. Ingurumen txosten estrategikoa egiteko ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura. 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioarena. 29-32 artikulua.

36. gaia. 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena. 1-7 artikulua: xedea, definizioak, eremua, zehaztapena, eskumenak, konkurrentzia eta hierarkia.

37. gaia: Hasiera. Aldez aurreko kontsultak. Erreferentziako dokumentua. Ingurumen jasangarritasunari buruzko txostena. Kontsultak eta jendaurrean jartzea. Ingurumen memoria. Plana edo programa aldatzea. Publikotasuna. Jarraipena. Xedapenak. Eranskinak. 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena. 8-16 artikulua. Xedapenak. Eranskinak.

38. gaia. 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena. VI. kapitula (33-37 artikulua).

39. gaia. 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratarena. II. kapituluko 3. atala: zarata mapak (14-16 artikulua). III. kapituluko 2. atala: ekintza planak (22-24 artikulua).

40. gaia. 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa. Atariko titulua: udalerrien eskumenak (6. artikulua). I. kapituluko I. titulua: zarata mapak (10-15 artikulua). II. kapituluko I. titulua: ekintza planak (16-19 artikulua).

41. gaia. 34/2007 Legea, azaroaren 15ekoa, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzkoa. I., II., III. eta VI. kapitulua (1-28 artikulua).

42. gaia. 100/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen duena eta bera ezartzeko oinarrizko xedapenak finkatzen dituena. 1-9 artikulua.

43. gaia. 278/2011 Dekretua, abenduaren 27koa, Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak egiten dituzten instalazioak erregulatzen dituena: 5., 10., 11., eta 12. artikulua.

44. gaia. 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzkoa. I. titulua: natura ondarea eta biodibertsitatea ezagutzeko eta planifikatzeko tresnak.

45. gaia. 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzkoa. I. titulua. Xedapen orokorrak (1-9 artikulua). III. titulua: Natura ondarea ezagutu, planifikatu eta babesteko tresna orokorrak (14-66 artikulua).

46. gaia. 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa. Atariko titulua, I. titulua eta II. titulua.

47. gaia. 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa. III. eta IV. titulua.

48. gaia. 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa. VIII. titulua.

49. gaia. 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa. IX. titulua.

50. gaia. SANDACH gida. Gizakiek jateko ez diren animalia jatorriko azpiproduktuak, lege esparru berria, apirila, 2013. 3. eta 7. puntuak.

51. gaia. SANDACH gida. Gizakiek jateko ez diren animalia jatorriko azpiproduktuak, lege esparru berria, apirila, 2013. 12. eta 13. puntuak.

52. gaia. 1055/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, ontziei eta ontzien hondakinei buruzkoa. I. titulua. Xedapen orokorrak eta helburuak (1-11 artikulua). II. titulua: Ekoizlearen erantzukizun hedatua (12-48 artikulua). III. titulua: informazio betebeharrak (49-51 artikulua).

53. gaia. 110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, gailu elektrikoen eta elektronikoen hondakinei buruzkoa. 1., 15-19 eta 37. artikulua.

54. gaia. 106/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, pilei eta metagailuei eta horien hondakinen ingurumen kudeaketari buruzkoa. I., II., III., IV. eta V. kapituluak (1-14 artikulua).

55. gaia. 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena. (1-21 artikulua).

56. gaia. 63/2019 Dekretua, apirilaren 9koa, Komunitateko konpostatze instalazio eta jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituena.

57. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoko komunitateko konpostatzerako gida praktikoa. 5-7 puntuak.

58. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoko komunitateko konpostatzerako gida praktikoa. 8-10 puntuak.

59. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoko komunitateko konpostatzerako gida praktikoa. 11-13 puntuak.

60. gaia. 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, Lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen deklaraziorako estandarrak eta irizpideak ezartzen dituena. 1-19 artikulua, xedapen gehigarriak eta azken xedapenak, eta III. eta IV. eranskinak.

61. gaia. 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa. I., II., III., eta IV. kapituluak (1-26 artikulua).

62. gaia. 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa. V., VI. eta VII. kapituluak (27-53 artikulua).

63. gaia. 209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena. 1-23 artikulua.

64. gaia. 50/2025 Dekretua, otsailaren 25ekoa, EAEko abeltzaintzako ustategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena. I., II., eta III. kapituluak (1-21 artikulua). IV. eranskina (abeltzaintzako ustategien sailkapena). IX. eranskina (erantzukizunpeko adierazpena).

65. gaia. 139/2025 Dekretua, uztailaren 1ekoa, EAEko erlezaintza antolatzeari buruzkoa. 1-15 artikulua.

66. gaia. 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena. I. titulua: Xedapen orokorrak (1-7 artikulua). II. titulua: Ikuskizun eta jolas jarduerari aplikatu beharreko araubidea (8-24 artikulua).

67. gaia. 17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko erregelamendua onesten duena. 1–84 artikulua.

68. gaia. 17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko erregelamendua onesten duena. 85–125 artikulua.

69. gaia. Eskala txikiko/ertaineko konpostatze eredurako instalazioaren operazio eskuliburua, Asparreneko konpostatze instalazioari dagokiona (erakundearen webgunean dago eskuragarri).

70. gaia. 20/2018 Foru Araua, azaroaren 21ekoa, Arabako hiri hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko 2017-2030 plana onestekoa. 1., 2. eta 3. puntuak.

71. gaia. 20/2018 Foru Araua, azaroaren 21ekoa, Arabako hiri hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko 2017-2030 plana onestekoa. 6. puntua.

72. gaia. 20/2018 Foru Araua, azaroaren 21ekoa, Arabako hiri hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko 2017-2030 plana onestekoa. 7. eta 8. puntuak.

73. gaia. 7/2023 Legea, martxoaren 28koa, Animalien Eskubideak eta Ongizatea Babestekoa. Atariko titulua. Xedea, aplikazio eremua eta definizioak (1-3 artikulua). I. titulua: animalien babesa sustatzea — Estatuko organoak, Erregistroen Sistema Nagusia, Animaliak Babesteko Estatistika, plangintza, animaliak babesteko zentro publikoak (4-23 artikulua).

74. gaia. 7/2023 Legea, martxoaren 28koa, Animalien Eskubideak eta Ongizatea Babestekoa. II. titulua: animaliak edukitzea eta haiekin modu arduratsuan bizitzea — betebeharrak eta debeku orokorrak, lagun egiteko animaliak, itxian dauden animalia basatiak, zerrenda positiboa, katu koloniak, animaliak babesteko erakundeak (24-50 artikulua).

75. gaia. 7/2023 Legea, martxoaren 28koa, Animalien Eskubideak eta Ongizatea Babestekoa. III. titulua: hazkuntza, merkataritza, identifikazioa eta garraioa (51-61 artikulua). IV. titulua: animaliak erabiltzea kultura- eta jai-jardueretan (62-65 artikulua). V. titulua: ikuskapena eta zaintza (66-68 artikulua). VI. titulua: zehapen araubidea (69-81 artikulua).

76. gaia. 9/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, EAEko etxeko animaliak babesteari buruzkoa. I. titulua: titularren betebeharrak (4-7 artikulua). II. titulua: etxeko animaliak eta animalia basatiak itxian — arau orokorrak, abandonua eta bilketa, nukleo zoologikoak, ikuskizunak, hiri populazioen kudeaketa, arraza autoktonoak (8-30 artikulua).

77. gaia. 9/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, EAEko etxeko animaliak babesteari buruzkoa. III. titulutik V. titulura: animaliak babesteko elkarteak, errolda/AIEO/ikuskapena eta zehapen araubidea (31-43 artikulua).

78. gaia. 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena: Dirulaguntza publikoen xedapen komunak. 8-21 artikulua.

79. gaia. 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena: Dirulaguntzak emateko prozedura eta kudeaketa. 22-35 artikulua.

80. gaia. 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena: dirulaguntzaren itzulketa. 36-43 artikulua.

81. gaia. Parke eolikoak eta fotovoltaikoak sortutako inpaktuak eta ingurumen zonakatzaren proposamena. 1. puntua (Sarrera), 2. puntua (Energia eolikoa eta fotovoltaikoa EAEn), 3. puntua (Parke eolikoak eta instalazio fotovoltaikoak EAEn), 6. puntua (Inpaktuak sor ditzaketen elementuen edo jardueren azterketa) eta 7. puntua (Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea zonakatzeko proposamena). <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/documentacion/2022/desarrollo-de-las-energias-eolica-y-fotovoltaiica-y-su-compatibilizacion-con-la-conservacion-del-patrimonio-natural-en-la-capv/>.

82. gaia. Parke eolikoaren ingurumen inpaktuaren 2021eko azterketaren edukia. Eusko Jaurlaritza. 1. puntua (parke eolikoak eraikitzeko jarraibide eta irizpide orokorrak), 2.1, 2.4 eta 2.5 puntuak (ingurumen inpaktuaren azterketen edukia — proiektuaren deskribapena, inpaktuen balorazioa eta prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurrien proposamena). Parke fotovoltaikoaren ingurumen inpaktuaren Eusko Jaurlaritzaren 2021eko azterketen edukia. 1. puntua (parke fotovoltaikoak eraikitzeko jarraibide eta irizpide orokorrak), 2.1, 2.4 eta 2.5 puntuak (ingurumen inpaktuaren azterketen edukia — proiektuaren deskribapena, inpaktuen balorazioa eta prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurrien proposamena).

83. gaia. 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzkoa. I eta II kap.: xedapen orokorrak eta gobernantza. III. kap.: lurralde historikoetako eta toki erakundeetako klima- eta energia-planak (1-19 artikulua). Bigarren xedapen gehigarria.

84. gaia. 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzkoa. IV. kapitulu 1. atala: trantsizio energetikoa. IV. kapitulu 2. atala, V. kap. (20-50 artikulua).

85. gaia. 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, EAEko Energia Jasangarritasunari buruzkoa. I. kap. eta II. titulu 2. kapituluaren I. atala: jasangarritasun energetikoa politika publikoetan txertatzea, eta erakundeen arteko koordinazioa eta helburu eta ekintza orokorrak.

86. gaia. 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, EAEko Energia Jasangarritasunari buruzkoa. II. titulu 2. kapitulu 2., 3. eta 4. atalak: eraikinak, garraioa eta mugikortasuna eta beste betebeharrak. (19- 28 artikulua).

87. gaia. Ingurumen gaitan informazioa eskuratzeari, erabakiak hartzeko garaian jendeak parte hartzeari eta justiziara jotzeari buruzko hitzarmena. 1-9 artikulua.

88. gaia. 27/2006 Legea, uztailaren 18koa, ingurumenaren arloan informazioa eskuratu, jendeak parte hartu eta auzitegiak joateko eskubideak arautzen dituen (2003/4/EE eta 2003/35/EE zuzentarauak barne hartzen ditu). I., II., III., eta IV. tituluak (1-23 artikulua).

89. gaia. 26/2007 Legea, urriaren 23koa, Ingurumen Erantzukizunari buruzkoa. I., II., III., eta IV. kapituluak (1-34 artikulua).

90. gaia. 2090/2008 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, onesten duena Ingurumen Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen garapen partzialerako Erregelamendua: I. eta II. kapituluak (1-32 artikulua). I. eranskina (ingurumen kaltea zehazteko alderdi teknikoak).

Arau erreferentziak informazio gisa baino ez dira ematen, eta, hala badagokio, hautaketa prozesu honetako izangaiei erantzukizuna da emandako araudia etengabe egokitzea eta eguneratzea. Deialdia BOEn edo ALHAOn argitaratzen den egunean indarrean dagoen araudia eza gutzea eskatuko da.

III. ERANSKINA

OINARRI ESPEZIFIKOAK — BERDINTASUNeko TEKNIKARIAK

ADMINISTRAZIO BEREZIAREN ESKALA, TEKNIKARIEN AZPIESKALA TEKNIKOA, A TALDEA (A2), BERDINTASUNeko TEKNIKARIAK

1. DEIALDIKO PLAZAK.

Dei egiten da administrazio bereziaren eskalako teknikarien azpieskalako berdintasuneko teknikarien klaseko plaza bat –A taldea, A2 azpitaldea– oposizio-lehiaketa bidez hornitzeko, honela banatuta:

Plaza bat (1) sistema irekiko txanda orokorrean, derrigortasun datadun 3. hizkuntza eskakizunarekin (2018/05/28).

Hauek dira lanpostu horren ezaugarriak eta ordainsariak:

- Oinarrizko ordainsariak: A2 azpitaldearenak.
- Destino-osagarria: 23. mailari dagozkionak.
- Berariazko osagarria: 15.854,27 euro.

2. BETEKIZUNAK.

Oinarri orokorretan ezarritakoez gain, graduako unibertsitate titulua, lizentziatura, unibertsitateko diplomatura edo baliokidea ere eduki beharko da, edo agiriok jaso ahal izateko eskubideak ordainduta izan beharko dira.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza ikastaroa, gutxienez 150 ordukoa, organo ofizial batek ziurtatua (unibertsitatea edo administrazio publikoa).

Titulua atzerrian lortu duten izangaiek tituluaren homologazioaren egiaztagiria eduki beharko dute.

Halaber, deialdiko plaza betetzeko, beharrezkoa izango da B gidabaimena edukitzea.

3. HAUTAKETA PROZESUA.

3.1. Oposizio aldia.

Aldi honetan, bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertze indarrekoak. Gehienez ere, 83 puntu lortu ahal izango dira.

3.1.1 Lehenengo ariketa: Ezagutza tekniko eta administratiboa. Nahitaezkoa eta baztertzailea. Gehienez 35 puntu, gutxienez 17,5 puntu. Test motako 2 proba egin beharko dira, eta oinarri hauei erantsitako gai zerrendei buruzko 4 erantzun aukera emango dira. Erantzun zuzenek 1,00 puntu ematen dituzte, eta okerrekin 0,33 puntu kentzen dituzte. Deusezak, anizkoitzak eta zuriz emandakoak ez dute ez punturik kentzen ez ematen.

• 3.1.1.1. 1. proba. Oinarri hauetako gai zerrenda orokorrarekin lotuta dago. Gehieneko puntuazioa: 11 puntu. Epaimahai kalifikatzaileak ariketako gehieneko puntuazioa esleituko dio lor daitekeen zuzeneko gehieneko puntuazioari, eta gainerako puntuazioak proportzionalak izango dira.

• 3.1.1.2. 2. proba. Oinarri hauetako gai zerrenda espezifikoarekin lotuta dago. Gehieneko puntuazioa: 24 puntu. Epaimahai kalifikatzaileak ariketako gehieneko puntuazioa esleituko dio lor daitekeen zuzeneko gehieneko puntuazioari, eta gainerako puntuazioak proportzionalak izango dira.

Salbuespen gisa, aurreko ataletan deskribatutako gutxieneko puntuazioak lortzen dituzten izangaien kopurua deitutako plazak halako bost baino txikiagoa bada, Epaimahai Kalifikatzaileak, ebazpen arrazoitu baten bidez eta emaitzak argitaratu eta izangaiak nortzuk diren jakin aurretik, ariketa osoaren mozketara nota gutxienez 14 punturaino jaistea erabaki ahal izango du (hasierako 17,5 puntuen ordeztu), lehiaketa aldian hautaketa eta lehia egokia bermatzeko xedearekin.

3.1.2. Bigarren ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzaila. Gehienez 48 puntu lor daitezke. Test erako proba bat egin beharko da, eta erantzuteko 4 aukera izango dira, teoriko-praktikoak, egin-kizun eta zeregin nagusiekin lotura zuzena dutenak. Ariketa hau gainditzeko, gutxienez 24 puntu lortu beharko dira. Erantzun zuzenek 1,50 puntu ematen dituzte, eta okerrekin 0,50 puntu kentzen dituzte. Deusez, anizkoitzak eta zuriz emandakoek ez dute ez punturik kentzen ez ematen. Epaimahai kalifikatzaileak ariketako gehieneko puntuazioa esleituko dio lor daitekeen zuzeneko gehieneko puntuazioari, eta gainerako puntuazioak proportzionalak izango dira.

Salbuespen gisa, aurreko ataletan deskribatutako gutxieneko puntuazioak lortzen dituzten izangaien kopurua deitutako plazak halako bost baino txikiagoa bada, Epaimahai Kalifikatzaileak, ebazpen arrazoitu baten bidez eta emaitzak argitaratu eta izangaiak nortzuk diren jakin aurretik, ariketa osoaren mozketara nota gutxienez 20 punturaino jaistea erabaki ahal izango du (hasierako 24 puntuen ordeztu), lehiaketa aldian hautaketa eta lehia egokia bermatzeko xedearekin.

3.2. Euskara azterketa.

Euskara azterketa, hizkuntza horren ezagutza ebaluatuko da 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatze proba eginez.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukatenek edo balio bereko titulu edo ziurtagirietako bat daukatenek euskara ariketak egiteko eguna baino lehenago aurkeztu beharko dituzte titulu edo ziurtagiri horiek egiaztatzen dituzten agiriak, helbide honetan:

Kuadrillako idazkaritza. Langarika Bidearen plaza, 4 behe. 01200 Agurain.

3.3. Lehiaketa aldia.

Lehiaketa aldian, izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Haietako bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak esleituz egingo da.

3.3.1. Esperientzia: 8 puntu gehienez.

Administrazio publikotzat jotzen diren erakunde eta organismoetan izandako esperientzia profesionala baloratuko da, gehienez ere zortzi (8) punturaino, edozein administrazio publikotatik emakumeen eta gizonen berdintasunerako teknikari edo arlo berean dinamizatzaile gisa emandako zerbitzuengatik (A2).

Hilabete bati dagokion zatikia 0,15 punturekin baloratuko da esperientzia edozein toki erakundetan bada, eta 0,10 punturekin beste administrazio batean bada, gehienez 8 punturekin bi kasuetan.

Ondorio horietarako, administrazio publikotzat jotzen dira abenduaren 26ko 70/1978 Legeak barnean hartzen dituenak, berekin dakartenak administrazio publikoko aurretiazko zerbitzuen aitorpena, merkataritza sozietate publikoak eta fundazioak kanpo daudelarik.

Lanaldi partzialeko izendapen edo kontratuarekin emandako zerbitzuak baloratzeko, kontuan edukiko da kontratatutako lanaldiaren iraupena, lanaldi osoarekiko erlazioan. Kasu honetan, baremo orokorrean ezarritako puntuazio aplikagarria dagokion proportzioan murriztuko da.

3.3.2. Informatikaren ezagutza (gehienez 0,50 puntu).

Informatika ezagutzak baloratuko dira, 0,5 puntu gehienez, eta 0,1 puntu emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.
- Internet oinarrizkoa.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 (maila bakarra).
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.
- Internet aurreratua.

Moduluak gainditu direla egiaztatzeko, ITxartelaren ziurtapen sistema erabiliko da, oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen badira, haietako bat bakarrik baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarrizko maila ere egiaztatutzat emango zaie.

Aplikazio baten bertsio jakin baten ziurtapenak baliogabetu egingo ditu bertsio zaharra-goenak.

3.3.3. Prestakuntza (3 puntu gehienez).

Izangaiek lortu nahi duten postuaren profilarekin lotutako gaiei buruzko prestakuntza osagarriagatik gehienez ere 3 puntu lortu ahalko dituzte atal honetan.

1. Lanpostuarekin lotutako gradua edo masterra, irizpide honen arabera:

- 300 ordu edo gehiago: puntu 1.
- 500 ordu edo gehiago: 1,5 puntu.
- 700 ordu edo gehiago: 2 puntu.

2. Lanpostuarekin zerikusia duten gaiei buruzko prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak, eskatutakoaz bestelakoak:

- 20 eta 49 ordu bitarteko bakoitzeko: 0,10 puntu.
- 50 eta 100 ordu bitarteko bakoitzeko: 0,25 puntu.
- 100 ordu baino gehiagoko bakoitzeko: 0,5 puntu.

Atal honetan epaimahaiak honako hauek soilik hartuko ditu kontuan: funtzionarioen prestakuntza eskola ofizialek (Administrazio Publikoaren Institutu Nazionala, IVAP, beste administrazio eskola batzuk, eta abar), elkargo ofizialek, unibertsitate publiko zein pribatuek, izaera juridiko publikoa duten zentroek antolatu edo emandako prestakuntza jarduerak, baldin eta ezarritako denboran aurkeztu badira, behar bezala egiaztatu badira eta iraupena justifikatu bada, ordu kopuru osoa berariaz adieraziz.

Titulazio akademiko bat lortzeko ikasketa planen parte den prestakuntza ez da baloratuko. Prestakuntza ikastaroak ez dira kontuan hartuko, ikastaro horien iraupena egiaztagirietan berariaz adierazten ez bada.

4. PRAKTIKA ETA PRESTAKUNTZA ALDIA.

6 hilabete iraungo duen praktika eta prestakuntza aldi bat egingo da, oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz.

5. ALDI BATERAKO LAN POLTSA.

Behin deialdiak ebatzita, oposizio aldiko ariketak gainditu eta lanposturik eskuratu ez duten izangaiek dagozkien lan poltsak osatuko dituzte, zeinak erabiliko baitira aldi baterako langile beharrak asetzeko.

GAI ZERRENDIA

1. GAI KOMUNAK

1. gaia. Espainiako Konstituzioa (I). Oinarrizko eskubide eta betebeharrak (10-55 artikulua).
2. gaia. Espainiako Konstituzioa (II). Estatuaren lurralde antolamendua (137-158 artikulua).
3. gaia. Kode zibila: Espainiako ordenamendu juridikoaren iturriak, arau juridikoen aplikazioa, arau juridikoen eraginkortasuna eta nazioarteko zuzenbide pribatuko arauak (1-12 artikulua).
4. gaia. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (I). Atariko titulua (1-9 artikulua). I. titulua: Euskal Herriaren eskumenak (10-23 artikulua). II. titulua: Euskal Autonomia Erkidegoko botereak (24-34 artikulua).
5. gaia. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (II). III. titulua: Ogasuna eta Ondarea (40-45 artikulua).
6. gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak. I. titulua. Xedapen orokorrak (1-10 artikulua).
7. gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak. II. titulua. udalerria (11-19 artikulua).
8. gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak. VII. titulua. Toki erakundeetan lan egiten duten langileak (89-104 artikulua).
9. gaia. 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udalerrri bateko bizilagunen betebeharrak, eskubideak eta erantzukizunak (43-45 artikulua).
10. gaia. Enplegu publikoa (I). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enpleguaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena. Langile motak (8-13 artikulua). Enplegatu publikoen eskubideak (14-20 artikulua). Enplegatu publikoen eginbeharrak. Jokabide kodea (52-54 artikulua).
11. gaia. Enplegu publikoa (II). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enpleguaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena. Zerbitzu harremana hartzea eta galtzea (55-68 artikulua). Funtzionarioen administrazio egoerak, Euskal Enplegu Publikoaren Legearen arabera (136-160 artikulua).
12. gaia. Administrazio prozedura (I). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena. Jarduketa arau orokorrak (13-28 artikulua). Epemugak eta epeak (29-33 artikulua). Egintzen eraginkortasuna (37-42 artikulua).
13. gaia. Administrazio prozedura (II). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio prozeduran interesdun denaren eskubideak (53. artikulua). Prozeduraren antolamendua (70-74 artikulua). Ebazpena (87-92 artikulua).

14. gaia. Sektore publikoko kontratuak (I). 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Kontratuen kalifikazioa (12-24 artikulua).

15. gaia. Sektore publikoko kontratuak (II). 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Itunak egiteko askatasuna eta kontratuaren gutxieneko edukia, kontratua nola egin eta forma (34-37 artikulua). Kontratuaren alderdiak: kontratazio organoa (61-64 artikulua), enpresaburuaren gaitasuna eta kaudimena (65-71 artikulua).

16. gaia. 31/95 Legea, laneko arriskuen prebentzioarena. III. kapituluak Eskubideak eta betebeharrak (14-29 artikulua). V. kapituluak Langileak kontsultatzea eta langileen partaidetza (33-40 artikulua).

17. gaia. Datuen babesa. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. Xedapen orokorrak (1-3 artikulua). Babesaren printzipioak (4-10 artikulua). Pertsonen eskubideak (11-18 artikulua).

18. gaia. Gardentasuna. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. Aplikazio eremu subjektiboa (2-4 artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea (12-16 artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubideaz baliatzea (17-22 artikulua).

19. gaia. Berdintasun politikak. Printzipio orokorrak eta tutoretza. Politika publikoak: printzipio orokorrak (3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako) (3-22 artikulua).

20. gaia. 63/1989 Foru Araua, azaroaren 20koa, Arabako Lurralde Historikoko Kuadrillena.

2. GAI ESPEZIFIKOAK

21. gaia. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategina onesten duena. Atariko titulua eta xedapen orokorrak.

22. gaia. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategina onesten duena. I. titulua. Eskumena, eginkizunak, antolaketa eta finantzaketa.

23. gaia. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategina onesten duena. II. titulua. Genero ikuspegia euskal botere eta administrazio publikoen jardunean integratzeko neurriak.

24. gaia. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategina onesten duena. III. titulua. Zenbait esku hartze arlotan berdintasuna sustatzeko neurriak.

25. gaia. 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategina onesten duena. IV. titulua. Arau hausteak eta zehapenak.

26. gaia. Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legea. I. TITULUA.

27. gaia. Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legea. II. titulua. III. titulua.
28. gaia. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen Eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako. Atariko titulua, I. titulua eta II. titulua, II. eta III. kapituluak.
29. gaia. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen Eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako. IV. titulua.
30. gaia. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen Eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako. V titulua, I., II. eta III. kapituluak.
31. gaia. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen Eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako. VI., VII. eta VIII. titulua.
32. gaia. 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu askatasunaren berme osoarena. Prebentzioa eta detekzioa. II. titulua.
33. gaia. 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu askatasunaren berme osoarena. Prebentzioa eta detekzioa. IV. titulua.
34. gaia. 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu askatasunaren berme osoarena. Prebentzioa eta detekzioa. VI. titulua.
35. gaia. 901/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, Berdintasun planak eta haien erregistroa arautzen dituen eta laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistroari eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua aldatzen duena. I. eta II. kapituluak.
36. gaia. 901/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, Berdintasun planak eta haien erregistroa arautzen dituen eta laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistroari eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua aldatzen duena. III. eta IV. kapituluak.
37. gaia. 902/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Ordain-sari Berdintasunarena. I., II., III. eta IV. kapituluak.
38. gaia. 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituen. II. kapituluak.
39. gaia. 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituen. III. eta IV. kapituluak.
40. gaia. 6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratatu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriena.
41. gaia. Emakunde: xedeak, helburuak eta eginkizunak.
42. gaia. Diagnostikoak egiteko tresna. Genero adierazleak, enpresetan eta beste erakunde batzuetan. (Emakunde).
43. gaia. Planeko diagnostikoak egiteko tresna, enpresetan eta beste erakunde batzuetan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko. (Emakunde).
44. gaia. Tokiko berdintasun planak diseinatzea. (Emakunde).
45. gaia. Lehendik dauden tokiko berdintasun planak egokitzea. (Emakunde).
46. gaia. Tokiko berdintasun plana kudeatzea eta balioestea. (Emakunde).
47. gaia. Tokiko berdintasun planetan helburuak eta ekintzak definitzea. (Emakunde).
48. gaia. Generoak lurralde plangintzan eta hirigintzan duen eraginaren ebaluazioa. (Emakunde).

49. gaia. Genero ikuspegia txertatzea kontratu eta dirulaguntza publikoetan, hitzarmenetan eta itun sozialetan. (Emakunde).

50. gaia. Kirolean emakumeen kontrako sexu jazarpena eta abusuak prebenitzea. (Emakunde).

51. gaia. Indarkeria matxistaren biktima diren eta desgaitasuna duten emakume eta neskekin esku hartzea. (Emakunde).

52. gaia. Emakume eta gizonen arteko berdintasun esparruko ordenantza egitea. (Emakunde).

53. gaia. EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzeko zerbitzuetan datu pertsonalak tratatzeko gida. (Emakunde).

54. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen egoera enpleguaren esparruan. Generoko soldata arrakala. Eustat.

55. gaia. Arabako Lautadako Kuadrillako emakume eta gizonen berdintasunerako 2020-2023ko II. plana.

56. gaia. Erakundeen arteko II. Jarduera eta Koordinazio Protokoloa, Arabako Lautadako Kuadrillan indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta hobetzeko.

57. gaia. Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Plana 2022-2026.

58. gaia. Erakundeen arteko III. Akordioa, etxean tratatu txarrak jasaten dituzten eta sexu indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko: eginkizunak eta parte hartzaileak.

59. gaia. Arabako emakumeen elkarteak.

60. gaia. Genero berdintasuna Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan (5. helburua).

Arau erreferentziak informazio gisa baino ez dira ematen, eta, hala badagokio, hautaketa prozesu honetako izangaiei erantzukizuna da emandako araudia etengabe egokitzea eta eguneratzea. Deialdia BOEn edo ALHAOn argitaratzen den egunean indarrean dagoen araudia ezagutzea eskatuko da.

IV. ERANSKINA

OINARRI ESPEZIFIKOAK — ARKITEKTOA

ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, AZPIESKALA TEKNIKOAK,
A (A1) TALDEA, ARKITEKTOA

1. DEIALDIKO PLAZAK.

Dei egiten da administrazio bereziaren eskalako teknikarien azpieskalako arkitektoen klaseko plaza bat –A taldea, A1 azpitaldea– oposizio-lehiaketa bidez hornitzeko, honela banatuta:

Plaza bat (1) sistema irekiko txanda orokorrean, derrigortasun datadun 3. hizkuntza eskakizunarekin (2022/10/17).

Hauek dira lanpostu horren ezaugarriak eta ordainsariak:

- Oinarrizko ordainsariak: A1 azpitaldearenak.
- Destino-osagarria: 26. mailari dagozkionak.
- Berariazko osagarria: 17.666,19 euro.

2. BETEKIZUNAK.

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, arkitektura gradua edo baliokideko titulua eduki beharko da, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki (arkitekturako lizentziatura, arkitekto lanbide arautuan jarduteko gaitzen duen unibertsitate gradua edo unibertsitate gradua gehi arkitekto lanbide arautuan jarduteko gaitzen duen masterra).

Titulua atzerrian lortu duten izangaiek tituluaren homologazioaren egiaztagiria eduki beharko dute.

Halaber, deialdiko plaza betetzeko, beharrezkoa izango da B gidabaimena edukitzea.

3. HAUTAKETA PROZESUA.

3.1. Oposizio aldia.

Aldi honetan, bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertze indarrekoak. Gehienez ere, 83 puntu lortu ahal izango dira.

3.1.1 Lehenengo ariketa: Ezagutza tekniko eta administratiboa. Nahitaezkoa eta baztertzaila. Gehienez 35 puntu, gutxienez 17,5 puntu. Test motako 2 proba egin beharko dira, eta oinarri hauei erantsitako gai zerrendei buruzko 4 erantzun aukera emango dira. Erantzun zuzenek 1,00 puntu ematen dituzte, eta okerrekin 0,33 puntu kentzen dituzte. Deusezak, anizkoitzak eta zuriz emandakoak ez dute ez punturik kentzen ez ematen.

• 3.1.1.1. 1. proba. Oinarri hauetako gai zerrenda orokorrarekin lotuta dago. Gehieneko puntuazioa: 11 puntu. Epaimahai kalifikatzaileak ariketako gehieneko puntuazioa esleituko dio lor daitekeen zuzeneko gehieneko puntuazioari, eta gainerako puntuazioak proportzionalak izango dira.

• 3.1.1.2. 2. proba. Oinarri hauetako gai zerrenda espezifikoarekin lotuta dago. Gehieneko puntuazioa: 24 puntu. Epaimahai kalifikatzaileak ariketako gehieneko puntuazioa esleituko dio lor daitekeen zuzeneko gehieneko puntuazioari, eta gainerako puntuazioak proportzionalak izango dira.

Salbuespen gisa, aurreko ataletan deskribatutako gutxieneko puntuazioak lortzen dituzten izangaien kopurua deitutako plazak halako bost baino txikiagoa bada, Epaimahai Kalifikatzaileak, ebazpen arrazoitu baten bidez eta emaitzak argitaratu eta izangaia nortzuk diren jakin aurretik, ariketa osoaren mozketan nota gutxienez 14 punturaino jaistea erabaki ahal izango du (hasierako 17,5 puntuen ordean), lehiaketa aldian hautaketa eta lehia egokia bermatzeko xedearekin.

3.1.2. Bigarren ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzaila. Gehienez 48 puntu lor daitezke. Test erako proba bat egin beharko da, eta erantzuteko 4 aukera izango dira, teoriko-praktikoak, egin-kizun eta zeregin nagusiekin lotura zuzena dutenak. Ariketa hau gainditzeko, gutxienez 24 puntu lortu beharko dira. Erantzun zuzenek 1,50 puntu ematen dituzte, eta okerrekin 0,50 puntu kentzen dituzte. Deusezak, anizkoitzak eta zuriz emandakoek ez dute ez punturik kentzen ez ematen. Epaimahai kalifikatzaileak ariketako gehieneko puntuazioa esleitu dio lor daitekeen zuzeneko gehieneko puntuazioari, eta gainerako puntuazioak proportzionalak izango dira.

Salbuespen gisa, aurreko ataletan deskribatutako gutxienezko puntuazioak lortzen dituzten izangaien kopurua deitutako plazak halako bost baino txikiagoa bada, Epaimahai Kalifikatzaileak, ebazpen arrazoitu baten bidez eta emaitzak argitaratu eta izangaiak nortzuk diren jakin aurretik, ariketa osoaren mozketan nota gutxienez 20 punturaino jaitea erabaki ahal izango du (hasierako 24 puntuen ordez), lehiaketa aldian hautaketa eta lehia egokia bermatzeko xedearekin.

3.2. Euskara azterketa.

Euskara azterketa, hizkuntza horren ezagutza ebaluatuko da 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatze proba eginez.

Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukatenek edo balio bereko titulu edo ziurtagirietako bat daukatenek euskara ariketak egiteko eguna baino lehenago aurkeztu beharko dituzte titulu edo ziurtagiri horiek egiaztatzen dituzten agiriak, helbide honetan:

Kuadrillako idazkaritza. Langarika Bidearen plaza, 4 behe. 01200 Agurain.

3.3. Lehiaketa aldia.

Lehiaketa aldian, izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Haietako bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak esleitu egingo da.

3.3.1. Esperientzia: 8 puntu gehienez.

Herri administrazioetat jotzen diren erakunde eta organismoetako lan esperientzia baloratuko da, gehienez ere zortzi (8) punturaino, edozein herri administrazioetan A1 azpitaldeko lanpostu edo eginkizunetan lan egindako lanagatik, baldin eta horretan jarduteko beharrezkoa bazen arkitekto titulua edo baliokidea edukitzea, eta edozein lotura juridikoren pean, salbu eta zerbitzuen errentamendu kontratu zibil edo merkataritzakoen, beken eta prestakuntza praktiken bitartez emandako zerbitzuak.

Hilabete bati dagokion zatikia 0,15 punturekin baloratuko da esperientzia edozein toki erakundetan bada, eta 0,10 punturekin beste administrazio batean bada, gehienez 8 punturekin bi kasuetan.

Ondorio horietarako, administrazio publikotzat jotzen dira abenduaren 26ko 70/1978 Legeak barnean hartzen dituenak, berekin dakartenak administrazio publikoko aurretiazko zerbitzuen aitorpena, merkataritza sozietate publikoak eta fundazioak kanpo daudelarik.

Lanaldi partzialeko izendapen edo kontratuarekin emandako zerbitzuak baloratzeko, kontuan edukiko da kontratatutako lanaldiaren iraupena, lanaldi osoarekiko erlazioan. Kasu honetan, baremo orokorrean ezarritako puntuazio aplikagarria dagokion proportzioan murriztuko da.

3.3.2. Informatikaren ezagutza (gehienez 0,50 puntu).

Informatika ezagutzak baloratuko dira, 0,5 puntu gehienez, eta 0,1 puntu emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.
- Internet oinarrizkoa.

- Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 (maila bakarra).
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.
- Internet aurreratua.

Moduluak gaintitu direla egiaztatzeko, ITTxartelaren ziurtapen sistema erabiliko da, oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen badira, haietako bat bakarrik baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarrizko maila ere egiaztatutzat emango zaie.

Aplikazio baten bertsio jakin baten ziurtapenak baliogabetu egingo ditu bertsio zaharragoenak.

3.3.3. Prestakuntza (1,5 puntu gehienez).

Deialdiko plazarekin zuzenean loturiko eta ikastegi ofizialek edo administrazio publikoek emandako prestakuntza ikastaro bakoitzeko (hirigintza arloko ikastaro espezifikoak: plangintza, diziplina, kudeaketa, etab.):

51 - 100 ordu: 0,25.

101 - 300 ordu: 0,45.

301 - 450 ordu: 0,75.

450 - 600 ordu: 1,00.

601 ordu baino gehiago: 1,50.

Atal honetan epaimahaiak honako hauek soilik hartuko ditu kontuan: funtzionarioen prestakuntza eskola ofizialek (Administrazio Publikoaren Institutu Nazionala, IVAP, beste administrazio eskola batzuk, eta abar), elkargo ofizialek, unibertsitate publiko zein pribatuek, izaera juridiko publikoa duten zentroek antolatu edo emandako prestakuntza jarduerak, baldin eta ezarritako denboran aurkeztu badira, behar bezala egiaztatu badira eta iraupena justifikatu bada, ordu kopuru osoa berariaz adieraziz.

Titulazio akademiko bat lortzeko ikasketa planen parte den prestakuntza ez da baloratuko. Prestakuntza ikastaroak ez dira kontuan hartuko, ikastaro horien iraupena egiaztagirietan berariaz adierazten ez bada.

4. PRAKTIKA ETA PRESTAKUNTZA ALDIA.

6 hilabete iraungo duen praktika eta prestakuntza aldi bat egingo da, oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz.

5. ALDI BATERAKO LAN POLTSA.

Behin deialdiak ebatzita, oposizio aldiko ariketak gaintitu eta lanposturik eskuratu ez duten izangaiek dagozkien lan poltsak osatuko dituzte, zeinak erabiliko baitira aldi baterako langile beharrak asetzeko.

GAI ZERRENDIA**1. GAI KOMUNAK**

1. gaia. Espainiako Konstituzioa (I). Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak (10-55 artikulua).
2. gaia. Espainiako Konstituzioa (II). Estatuaren lurralde antolamendua (137-158 artikulua).
3. gaia. Europar Batasuna. Erakunde eta organismo nagusiak, haien osaera eta eskumenak: Kontseilua, Batzordea, Parlamentua, Justizia Epaitegia, Europako Kontuen Auzitegia, Eskualdeen Batzordea, Europako Inbertsio Bankua.
4. gaia. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (I). Atariko titulua (1-9 artikulua). I. titulua: Euskal Herriaren eskumenak (10-12 artikulua). II. titulua: Euskal Autonomia Erkidegoko botereak (24-39 artikulua).
5. gaia. Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (II). III. titulua: Ogasuna eta Ondarea (40-45 artikulua).
6. gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak. I. titulua. Xedapen orokorrak. II. titulua. I. kapituluak. Udalerrria Udal mugartea.
7. gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak. II. titulua. II. kapituluak. Udal antolamendua. Alkatea, udalbatza, zinegotziak, tokiko gobernu batzarra, informazio batzordeak, eskumen eskuordetuak, erakundearen egitura, udaleko taldeak eta alderdi politikoak.
8. gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak. VI. titulua. Ondasunak, jardura eta zerbitzuak eta kontratazioa. VII. titulua. Toki erakundeetako langileak.
9. gaia. 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. III. titulua. Udal eskumenak.
10. gaia. Enplegu publikoa (I). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enpleguaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena. Langile motak (8-13 artikulua). Enplegatu publikoen eskubideak (14-20 artikulua). Enplegatu publikoen eginbeharrak. Jokabide kodea (52-54 artikulua).
11. gaia. Enplegu publikoa (II). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enpleguaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena. Zerbitzu harremana hartzea eta galtzea (55-68 artikulua).
12. gaia. Enplegu publikoa (III). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enpleguaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena. Administrazio egoerak (85-92 artikulua). 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena. Hizkuntza normalizazioa (187-190 artikulua).
13. gaia. Administrazio prozedura (I). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Jarduketara arau orokorrak (13-28 artikulua). Epemugak eta epeak (29-33 artikulua). Egintzen eraginkortasuna (37-42 artikulua).
14. gaia. Administrazio prozedura (II). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio prozeduran interesdun denaren eskubideak (53. artikulua). Prozeduraren antolamendua (70-74 artikulua). Ebazpena (87-92 artikulua).
15. gaia. Sektore publikoko kontratuak (I). 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Legearen xedea eta aplikazio eremua (1-3 artikulua). Kontratu motak (12-18 artikulua). Kontratu administratiboak eta kontratu pribatuak (24-27 artikulua).

16. gaia. Sektore publikoko kontratuak (II). 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Itunak egiteko askatasuna eta kontratuaren gutxieneko edukia (34-35 artikulua). Baliogabetasun araubidea (38-43 artikulua).

17. gaia. Datuen babesa. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. Xedapen orokorrak (1-3 artikulua). Babesaren printzipioak (4-10 artikulua). Pertsonen eskubideak (11-18 artikulua).

18. gaia. Gardentasuna. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. Aplikazio eremu subjektiboa (2-4 artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea (12-16 artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubideaz baliatzea (17-22 artikulua).

19. gaia. Berdintasun politikak. Printzipio orokorrak eta tutoretza. Politika publikoak: printzipio orokorrak (3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa: 3-22 artikulua) Euskal Administrazio publikoen eremuko neurriak (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legearen testu bategina onesten duena) (16-25 artikulua).

20. gaia. 63/1989 Foru Araua, azaroaren 20koa, Arabako Lurralde Historikoko Kuadrillena.

2. GAI ESPEZIFIKOAK

Eraikuntza:

21. gaia. 38/1999 Legea, azaroaren 5koa, Eraikuntzaren Antolamenduarena: Aplikazio eremua. Eraikuntzaren betekizunak. Proiektua. Gauzatutako obraren harrera eta dokumentazioa.

22. gaia. 38/1999 Legea, azaroaren 5koa, Eraikuntzaren Antolamenduarena: Proiektugilearen betebeharrak. Obra zuzendariaren eta obra gauatzeko zuzendariaren eginkizunak. Eskrituran agerrarazteko eta errolatzeko betekizunak.

23. gaia. Gutxieneko irisgarritasun baldintzak. 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, iristerratasuna sustatzekoa, eta garatzen duten arau teknikoak.

24. gaia. 68/2000 Dekretua, hiri inguruneetako, espazio publikoetako, eraikinetako eta informazio eta komunikazio sistemetako irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.

25. gaia. 80/2022 Dekretua, EAEn etxebizitzaren eta zuzkidura bizitokien gutxieneko bizigarritasun baldintzak eta diseinu arauak arautzen dituena.

26. gaia. Eraikingintzaren Kode Teknikoa. Xedapen orokorrak. Oinarrizko eskakizunak.

27. gaia. Eraikingintzaren Kode Teknikoa. Baldintza teknikoak eta administratiboak. Obra eta eraikuntza proiektuaren eta gauzatzearen baldintza orokorrak.

28. gaia. Eraikuntzaren kode tekniko (EKT) eta haren oinarrizko dokumentuak: DB-HE, DB-HS, DB-HR, DB-SE, DB-SI, DB-SUA.

29. gaia. Eraikinen barruko telekomunikazio azpiegitura komunak. Eremu erreserbatuak eta hoditeriak diseinatzeko arauak.

30. gaia. Eraikuntzaren kalitate kontrola. 209/2014 Dekretua, urriaren 28koa, eraikuntzaren kalitatearen kontrola arautzen duena.

31. gaia. Gutxieneko osasun eta segurtasun xedapenak eraikuntza obretan. 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa.

32. gaia. Birgaitzeko esku hartzeak: Eraikuntza unitateen hirigintza egokitasuna. 317/2022 Dekretua, birgaitzeko jardun babestuei buruzkoa. Urbanizatzeko esku hartzeak.

33. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (II) Kontratuko alderdiak. Xedea, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, balio zenbatetsia eta kontratuaren prezioa.

34. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (III) Sektore publikoko kontratueta eska daitezkeen bermeak. Kontratuak aldatzea.

35. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa; honen bidez, Espainiako ordenamendu juridikora eramaten dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentaruak, 2014ko otsailaren 26koak (IV): Administrazio publikoen kontratuak prestatzea.

36. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa; honen bidez, Espainiako ordenamendu juridikora eramaten dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentaruak, 2014ko otsailaren 26koak (V): Kontratuak adjudikatzea.

37. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa; honen bidez, Espainiako ordenamendu juridikora eramaten dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentaruak, 2014ko otsailaren 26koak (VI): Administrazio kontratuen ondorioak, haiek betetzea eta azkentzea.

38. gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (VII) Arau orokorrak. Obra kontratuatarako arau bereziak.

Proiektuen eta obren jarraipena:

39. gaia. Eraikuntza eta urbanizazio proiektu teknikoak. Aurretiazko azterketak. Aurreproiektuak. Oinarritzko proiektua. Egikaritze proiektua: memoria, planoak, baldintzen agiria, aurrekontua.

40. gaia. Obra zuzentzea. Obra aginduak, grafikoak eta idatziak. Obraren ziurtapena. Obraren likidazioa eta harrera. Obra harreraren aktak.

41. gaia. 117/2018 Dekretua, EAEko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzkoa. Lurralde antolamendua eta jasagarritasuna.

42. gaia. 128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onesten baitira EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak.

43. gaia. Lurzoru urbanizaezinaren zonakatzea EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan (LAG). Baldintza gainjarriak.

44. gaia. 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onesteko prozedurak arautzen dituena.

45. gaia. EAEko Nekazaritza eta basozaintzako lurralde plan sektoriala. 177/2014 Dekretua.

46. gaia. Bizikleta bideen eta ibilbide berdeen arloko Arabako lurralde plana. 9/2003 Foru Araua, martxoaren 8koa. Eremua eta araudia.

47. gaia. Araba Erdialdeko eremu funtzionaleko lurralde plan partziala. 16/2026 Dekretua.

48. gaia. Datu espazialen azpiegitura. Lurralde informazioaren kudeaketa eta eragileen arteko elkarreragintasuna. Inspire zuzentzua eta Geoaraba.

49. gaia. Geografia informazioko sistemak. Definizioa. Datu geografikoak. Datu geografikoen irudikapen digitala. Geografia informazioko sistema bektorizatuak. Geografia informazioko Raster sistemak. Lurraren eredu digitalak.

Hirigintza plangintza eta kudeaketa:

50. gaia. 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Errehabilitazioaren Legearen testuategina onesten duena. Jabetza eskubidearen edukia: ahalmenak, eginbeharrak eta kargak.

51. gaia. 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, EAEko Lurzoru eta Hirigintzarena. Sailkapena eta kalifikazioa. 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, presako neurriena. 6/2025 Legea, abenduaren 11koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Presako Neurriena.

52. gaia. 4/1990 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzarena. Printzipio gidariak. Legeak lurralde antolakuntzarako taxututako tresnak.

53. gaia. Lurralde antolakuntzarako tresnen eraketa eta bideraketa. Administrazio koordinazioa: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea.

54. gaia. Hirigintza plangintza. Planen hierarkia. Plan motak.

55. gaia. Udaleko hirigintza plangintza. Plan orokorra. Xedea eta edukia.

56. gaia. Garapeneko plangintza. Planen tipologia: haietako bakoitzaren xedea eta edukia.

57. gaia. Udalerrri mailako hirigintza planen eraketa EAEn. Planak onesteko prozedura. Administrazioen esku hartzea.

58. gaia. Hiri birgaitzea, berroneratzea eta berrikuntza. 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Errehabilitazioaren Legearen testuategina onesten duena.

59. gaia. Egiturazko antolamendua eta antolamendu xehatua. Lurzoruaren sailkapenagatik diren mugak eta eginbeharrak: lagapenak eta obra urbanizatzailaren kostua.

60. gaia. Hirigintza plangintzako administrazio erregistroa. Hirigintza intereseko elkarteen administrazio erregistroa.

61. gaia. Hiri lurzoruaren araubidea plan orokorrean. Hiri lurzoru finkatua eta finkatugabea.

62. gaia. Lurzoru urbanizagarriaren araubidea plan orokorrean. Katetoria ezberdinen baldintza bereziak.

63. gaia. Antolamendu planak egikaritzea: eskumena eta printzipio orokorrak.

64. gaia. Hirigintzako jarduketa programak. Edukia. Dokumentazioa. Izapidetzea.

65. gaia. Planen jasagarritasun ekonomikoari buruzko memoria. Edukia, xedea eta aplikagarritasuna.

66. gaia. 45/2025 Dekretua, otsailaren 18koa, hirigintzako estandarrak arautzen dituena.

67. gaia. Paisaiaren babesa, kudeaketa eta antolamendua EAEko lurraldearen antolamenduan. Paisaiari buruzko Europako hitzarmena. 90/2014 Dekretua, Paisaiarena.

68. gaia. Euskal kultura ondarea. Legeria: 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.

Hirigintza diziplina:

69. gaia. Eraikitze lizentzia. Kontzeptua. Izaera, irismena eta ezaugarriak.

70. gaia. Lizentziak emateko prozedura. Hirigintzako kontsulta prestatze ekintza gisa, eta lizentziarekin duen lotura. Proiektu teknikoa eta elkargoaren ikus-onespena. Lizentzia espresuki ematea. Isilbidez ematea. Administrazio publikoek sustatutako egintzak.

71. gaia. Aurria. Kontzeptua eta motak. Hirigintza legezkotasunaren babesa. Egikaritzeko aginduak. Kontserbatzeko betebeharrak.

72. gaia. Hirigintzako arau hausteak. Arau hausteen motak. Administrazio zehapenak. Foru aldundietako hirigintza ikuskatzeko zerbitzua.

73. gaia. Irekitze edo jarduera lizentziak. Lizentziak behar dituzten jarduerak. Irekiera lizentzia behar ez duten jarduerak. Irekiera lizentziak ematea.

Hirigintza. Arloko legeria:

74. gaia. 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratarena.

75. gaia. 1513/2005 Errege Dekretua, abenduaren 16koa, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, zeinaren bidez garatzen baita azaroaren 17ko 37/2003 Legea, zaratarena, zonakatzeko akustikoari, kalitate helburuei eta igorpen akustikoei dagokienez.

76. gaia. 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

77. gaia. 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.

78. gaia. 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.

79. gaia. 13/2016 Legea, uztailaren 28koa, turismoarena. Xedapen orokorrak eta ostatu enpresa turistikoaren sailkapena.

80. gaia. 199/2013 Dekretua, apirilaren 16koa, landa ingurunekeo turismo ostatu establizimenduak arautzen dituenak.

Balorazioak:

81. gaia. Hirigintza balorazioak. Lurzoruen oinarriko egoerak. Lurzoru urbanizatua eta landa lurzorua. 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, lurzoruen eta hiri birgaitzearen legearen testu bateratua onartzen duenak, ezarritako balorazio araubidea.

82. gaia. Ondasun higiezinak baloratzeko irizpideak. Eraikinen balioa. 1492/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, Lurzoruen Legearen Balorazio Arautegia onesten duena.

83. gaia. 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, EAEko Etxebizitzarena.

84. gaia. Hilotzen Osasun Zaintzaren Erregelamendua. Estatuaren 2263/1974 Dekretua, hilerrien hirigintza plangintzarena.

85. gaia. 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, EAEko Energia Jasangarritasunari buruzkoa.

86. gaia. 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioarena.

87. gaia. 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, arautzen duena planen eta programaren ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura (indarrean, 21/2013 Legearen kontrakoa ez den guztian).

88. gaia. 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.

89. gaia. 6/1995 Foru Araua, otsailaren 13koa, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili, artatu eta zaintzekoa.

90. gaia. 11/2007 Foru Araua, martxoaren 26koa, mendiena, eta haren garapenerako arauak.

Arau erreferentziak informazio gisa baino ez dira ematen, eta, hala badagokio, hautaketa prozesu honetako izangaien erantzukizuna da emandako araudia etengabe egokitzea eta eguneratzea. Deialdia BOEn edo ALHAOn argitaratzen den egunean indarrean dagoen araudia eza gutzea eskatuko da.